

ttipi ttapa

387

2004ko abenduaren 2a • XXIV. urtea



**Donatoren
zortzigarrena**

24

Donato Larretxea aizkolari aranz-tarrak Nafarroako txapela jantzi zuen zortzigarren aldiz, Donezteben azaroaren 19an jokaturako finalean aisa nagusituta.



**Bortzirietako
binakako txapelak**

25

Azaroaren 20an jokatu ziren Le-sakan Bortzirietako eskuz binakako laugarren txapelketaren finalak. Guzira 132 pilotarik parte hartu dute txapelketa honetan.



04

Anizko Jauregia

**Etxeko jogurt eta gasna
etxeko behi esnearekin egina**

MULTIOPTICAS Gabonetako Opariak



P.S.P.: 50€
Gabonetan **42€**



P.S.P.: 45€
Gabonetan **33€**



P.S.P.: 45€
Gabonetan **35€**





Zure Varilux®
PROGRESIBOAK egokituta,
opari hau:

Meteorologia
estazio
zoragarria

Crizal ALIZE relin eguna garbiago.
Ereleku-kontako tratamendu berria, ez daukazu garbitu beharrik.



ESSILOR

Mendibil Merkatal Gunea • Tel.: 943 63 99 10 • IRUN

MUEBLES AMETS

Iarunbat arratsaldetan irekia

4000 m² erakusketa

Sarrera BERAtik da
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Ifnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

Haurrendako logeletan aukera zabala

- Sukaldeak
- Egongelak
- Logelak
- Bainugelak





LESAKA

Kasik ehun buru aurkeztu ziren Bortzirietako azienda feriara

Sari nagusia Berako Begitzenekobordara joan zen

Aitor AROTZENA

Eguraldi zoragarria lagun zutela, 97 azienda buru aurkeztu zituzten plazara feria egunean. 16 behi eraman zituzten. Suizetan, Berako Begitzenekobordara joan zen 190 euroko lehen saria eta behi onenari emandako txapela. 160 eta 100 euroko bigarren eta hirugarren sariak Makukobordako Luis Olaetxeak eraman zituen. Haragitako behietan ere lehen saria Makukokordara joan zen eta bigarren eta hirugarren sariak Iriburutako Jon Muñozak eskuratu zituen. Azken urteetan ohikoa denez, zaldi azienda izan zen gehien ikusi zena plazan, 69 buru. Horien artean lehen saria, 125 euro eta txapela, Arantxeneko Joseba Almandozek eraman zuen; bigarren saria Berako Maitagarriko Juan Luis Etxegaraik eta hirugarrena Agorlekuko Bautista Urrozek. Hamabi ahareen artean, 35 euroko lehen saria Etxalarko Josetxo Ariztegirenak eskuratu zuen. Bigarrena eta hirugarren sariak Arantzara joan ziren, Etxerrekoborda eta Iruleara.



Hamasei behi azienda, hamabi ahare eta hirutan hogeita bederatzi zaldi azienda izan zituen jendeak ikusgai plaza inguruan.

FLASH

Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa

Abenduaren 11n, Pirritx eta Porrotxen «Patata patata» saio berria ikusteko modua izanen da frontoian, 17:00etatik aitzinera. Otxogorrienea Guraso Elkarteak antolatuta du ekitaldia, Arte eta Kultura egitarasuaren barnean. Sarrerak aitzinetik ohiko lekuetan salgai egonen dira 3 eurotan. Egunean berean 4 euro ordaindu beharko dira.

IX. Rallysprint Auto lasterketa

Azaroaren 20an burutu zen Aginako maldetan Lesakako bederatzigarren Rallysprint auto lasterketa. Eguzki Sporteskuderiak antolatutako lasterketa honetan 79 auto gidarik parte hartu zuen. Horien artean, us-tekabea eman zuen Mitsubishi Lance Evo autoa gidatzen zuen Ramon Apalantzak eta garapena eskuratu zuen. Bigarren izan zen faborito nagusia eta joan den urteko irabazlea, Josebo Zapiain, Renault Maxi Megane autoa gidatuz. Podiuma, BMW M3a gidatzen zuen Bernardo Zozaiak osatu zuen.

Suhiltzaileen parkea

Suhiltzaileen parkearen mantenurako elkarian hitzarmena sinatu dute Nafarroako Gobernuak, Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentuak eta Udalak.

ANA
jantaridenda
Bilma 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZAHAI
JATETXEA
Tlxoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tlxoa: 948 637 127
LESAKA

Borda
Pladur lanak
Tel Fax: 948 637 546 - 608 477 277
bordeborra.es

ETXALAR

76 dozenarekin akautu da uso sasoia aurten Usategietan

laz baino zerbaiz gutiago bada ere, ez da kopuru txarra

Joseba eta Nerea

76 dozena eta 5 usorekin akabatu dute usazaleek aurtengo uso-sasoia. Urriaren lehenbizian hasi eta joan den azaroaren 20 arte luzatu zen aurtengo denboraldia eta Pabli Elizalde usazaleak erran digunez «ez dugu kezatzeko arrazoirik aurten, lazko uso-kopururik ez dugu harrautu baina orokorrean aitzineko urte-etako bolada txarra hobetu dugu». Pilarika arte ongi ibili ziren baina gero okertzen joan zen sasoia. «Hutsune bat izan genuen hor, eguraldiak ez baitzigun baxere lagundu eta haizegoarekin gaizki ibili ginen. Hala ere gerora buelta eman zuen eta bertze dozena batzuk hartu genituen».

Kopuruak kopuru, giro onean joan zalela uso-sasoia erran digute eta orokorrean gustoragelditu direla. Abenduaren 4an Maulen elkartuko dira bertze hainbat Usategietako kide-



ANTONIO

Xorroxin irratia Landagain eskolan

Asteartean hasi ziren Landagain eskolako haurrak Xorroxin irratiarekin lanean eta ortzegunerarte egonen dira esatari lanak egiten. Goizeko 11,15etatik eguerdiko 12,30ak arte egiten dute irratsaioa eta gisa guztietako edukiak lantzen dituzte. «Elkarrizketak, errezetak, albisteak, txisteak, lehiaketak, kantuak euskaraz eta ingelesez... eskola guztiak hartzen dugu parte eta ahalik eta programa osatuena egiten saiatzen gara» aipatu digu Aintzane Ollokiegi irakasleak. Oraindik programa aditu ez duzuenok ortzegunerarte duzue aukera FM 106,9 frekuentzian.

ekin urtero egiten duten usazaleen bestan.

Eguberrietako kantuen entsaioak

Guraso Elkarteak eta Al-

txata Kultur Elkarteak antolaturik, Eguberrietako kantuen entsaioak egingen dira heldu den abenduaren 11n eta 18an, 16:00etan Erretorenean. Azken urte-

tako martxa ikusita Olenzero eguneko kantuak indartzea pentsatu dute eta guraso, haur eta gazte guztiak animatzen dituzte entsaioetan parte hartzera.



PERTSONAIA

Gerardo DANBORIENA

“Inoiz ez da nahi haina uso harrautzen”

lazko 85 dozenak harrautu ez badituzte ere, kontent ageri da Gerardo Danboriena usazalea aurten hartutako 76 dozenekin. “Hagitz aunitz pasatu da, sekula baino gehiago. Hala ere harrautu gutti egin dugu. Geroz eta gehiago kostatzen zaigu, usoak arront altu etortzen direlako eta gainera hagitz izituak”. Usategietan ipar haizea behar izaten da ongi lan egiteko eta hortik gutti izan dutela erran digu Gerardok. “Urrian hiru astez haizegoa izan genuen. Gainera normalki azkeneko 15 egunak izaten dira hobereak baina aurten ez dira baxere emankorrak suertatu”. Edozein moduz, egun hagitz onak ere izan dituzte eta igande batean uso-multzo batek zazpi minutu behar izan zituela Usategietatik pasatzeko oroitzen du Gerardok.

HERRIKO
OSTATU - JATETxea

Arretxaga kalea, 31 • 48102 (14.00)
Teléfono • 948100000

LEGARRA
BERRIKUNTZA
OPOSIZIOAK PRESTATZEKO
LIBURUAK EKARTZEN
DITUGU, EUSKARAZ ETA
GAZTELERAZ
Egunero irekia
Tfno. / Fax: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

luredenda
Albistur, 39-K
• 627542
LESACA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

GOYA
arropak • mailndireak
Mantak • nordikoak
toallak • kortinak
Alfonbrak
Altzate, 5 • 948630083 BERA
LABE-ZAK
948631076 • BERA

IGANTZI

Heldu den larunbatean dira hastekoak Kultur Egunak

Hurrengo asteazkenera arte
ekitaldi aunitz izanen da herrian

Oskar TXOPERENA

Gogotik egin behar izan du lan herriko Euskara Batzordeak hurrengo egunetan izanen diren ekitaldiak antolatzeko. Hilabetearen behin biltzen dira bere kideak euskararekin zerikusirik duten gaiak eztabaidatzeko, baina garai honetan izaten da euren lana bistakoena. Ondoko egitarauan ikusiko duzun bezala, mota guztietako ikuskizunak gozatu ahal izanen dugu herrian hurrengo egunetan:

Larunbata 4

17:00etan: Antzerkia Baratzondon. Azoka txontxongilo taldeak "Barne iluna". 21:00etan: Antzerkia helduentzat Baraton-

don. Oraindik zehaztu gabeko antzeslana.

Igandea 5

20:30etan: Zinema Biltoki Elkartearen "Otsoen ituna"

Astelehena 6

15:00etatik 17:00etara: Herriko haurren eskularen erakusketa. Ondotik berendua. 19:00etan, Erretorbaitan (zentroan): Askagintzak eskainitako hitzaldia: "Gazteak eta droga Euskal Herrian".

Astearte 7

19:00etan, Biltoki Elkartearen: Herriarrei zuzendutako Bai Euskari kanpainari buruzko hitzaldia. 21:00etan, Baratzondon: Lonely Star country musika taldearen emanaldia.

Asteazkena 8



ARGAZKIA: Oskar TXOPERENA

Amabirgin egun goizean dantzariak karrikaz-karrika ikusteko aukera izanen dugu.

Goizean Biltoki Elkarteak "Artzaintza igantziarrentzat" lemapean antolatutako erakusketa eta ekitaldiak izanen dira. Herriko dantzariak karrikaz-karrika ibiliko dira goizez eta arratsaldez talo, gazta eta sagardoa eskainiko dira.

Bortzirietako Txapelketa

Gazi-gozoa izan da Igantziko pilotarientzat Bortzirietako Binakako Txapelketaren akabila. Izan ere, alde batetik postekoa da 9 finaleratik 6tan igantzarrak egotea, baina 6 final horietan txapel bakarra lortu izanak ez zituen berta-

ra joandako herritarrek sobera gustora utzi. Zer egingen da! Diogun bezala, Imanol Goienetxek irabazitakoa izan zen lortutako txapel bakarra, baina finala jokatu zutenak ere aipatuko ditugu, ttikienetatik hasita: Joseba Bertiz eta Eneko Esparza, Unai Telletxea eta Mikel Begino, Asier Sein eta Adur Yanci, Aitor Begino eta Iker Sein, Beñat Txoperena (Mikel Kanpo iturrendarrarekin aritu zen) eta lehen alpatutako Imanol Goienetxe (Andoni Martinez berrarekin). Orain banakakoan herriko 19 pilotari hasiak dira joan den igandeaz geroztik.



1987az geroztik herriko berriak eman ditu Oskarek.

Berriemaile berria 2005erako

2005eko lehenbiziko aleaz geroztik Igantziko berriak berriz berriemaile batek emanen ditu. Hala espero dute behinik behin Ttipi-ttapako aldirikariko arduradunek, betebeharrak horretarako norbait bilatzea. Izan ere, aspaldiko urte hauetan aritu den Oskar Txoperena berriemaileak utzi egingen du zeregin hori urtea akautzen denean. Lan hori gustora egingen zenukeela nolobait pentsatu baldin baduzu, jo ezazu beldurrik gabeko Ttipi-ttapara, han emanen baitzikizute behar diren xehetasun guztiak.

ERREKALDE

OSKAR TXOPERENA

PLAZA

CONTRATUAK

PARTIDAK

ERREKALDE

Ttapa, 404 430 259, 4424

TOLDOAK BALMENTA-KONPORKETA-ALOKARITZA-ERROTULAZIOA

MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATIAK

PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK

VENECIANAK

TOLDOAK

ARANTZA

Ortzegunerako bilera deia egin du Ekaitzak pilotari gazteen gurasoei zuzendua

Abenduaren 15ean eta 19an herri eskolako lagunek antzezlanak erakutsiko dituzte

Nerea ALTZURI

Azaroaren 20an Bortzietako binakako txapelketaren finalak jokatu ziren. Herriko pilotari gazte talde bat parte hartzen aritu da Ekaitza elkartearen izenean. Ekaitza elkarteak batzordeko kirol taldeak bideratzen du informazioa eta gisa berean, talde honetako arduradunak, pilotari buruzko informazio bideratzen die gazteei eta gurasoei. Lan handia da eta arduragorri Ekaitzaren eta gurasoen artean banatzeko, bilera deialdia egin du elkarteak. Pilotari gazteen gurasoei bereziki zuzendutako bilera ortzegun honetan izanen da.


Bertako antzerkigintza

Urtero bezala, eskolako lagunak Eguberrietako oporren aitzineko antzezlanak prestatzen ari dira. Abenduaren 15ean eta 19an lau antzezlan egingen dituzte eskolan. Lehenengo saioan, Etxalar, Igantzi eta herriko ikasle eta irakasleen aitzinean egingen dituzte. Bigarren emanaldia, abenduaren 19an, 17:00etan gainerako herritarren aitzinean. Haur Hezkuntzako gaztetxoek koreografia prestatu dute. Lehen Zikloko lagunek, «Gaixo tranpatia» lana taularatu dute, bigarren eta 3. Ziklokoen antzezlanak «Aukera berdina» da eta azkenik, DBHko taldeak «Bi argi piztu» antzeztuko du.



DEPOSITO PODIUM

Errentagarritasuna eta likidezia mailarik altuenean



Goranzko Aurrezkia + Inbertsio Fondoa

- Erabilgarria edozein momentutan inolako kosturik gabe.
- Interesen ordainketa sehilero.
- Gehieneko epea: 3 urte.
- T.A.E.: % 3,02koa, Goranzko Aurrezkia eta Inbertsio Fondoaren artean erdibana egindako inbertsioarentzat kalkulatu.
- posible da banatzea %70a Goranzko Aurrezkia eta %30a Inbertsio Fondoaren artean.

- Malgutasun osoa: dugun fondo aukera zabalaren artean zuk aukeratzeko duzu nahi duzun Inbertsio Fondoa.
- Epea: 3 urte.

www.ruralvia.com

Egunero hobekiago egitearen erronka



NAFARROAKO
RURAL KUTXA

*Upper Santa-Cruz Biaz Geosuperficie, 2003ko Funtzio Murriztearen Espaziala Berreskuratu
Edukia herria baliatzen, Inbertsio Funtzioa aukeratu duzun laguna berreskuratu berritu berritu duzun
Rural Kutxa duzun aurreko gertakari laguna on. Edukia jantziak berritu berritu berritu du.

MALERREKA

Ur-hornidura arazoak moldatzeko Mendaur soluzioa onartu da

Nafarroako Gobernua oso-osorik ordainduko ditu lanak

ttipi-ttapa

Ituren, Elgorriaga, Doneztebe, Sunbilla eta Zubietak ur hornidura arazoak moldatzeko soluzio berria izanen dute, Nafarroako Gobernuak Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean oso osorik ordainduko baitu herri horietako udalek aurkeztutako egitasmoa. Mendaur soluzioari finantziazioa ematen dion Foru Agindua azaroaren 17an sinatu zuen Alberto Catalan, Toki Administrazio kontseilariak.

Proiektu hau da, hirurteko azpiegitura planaren barnean sartuak dauden artean zaharrena, 1996koa baita. Arrazoi batengatik edo bertzearengatik, lanak emateko lehiaketetan ez da horretarako prest inor agertu eta egitasmoa moldatzen joan da horren arabera. Honeia, proiektuaren kostu ekonomikoa berriz ere aztertu da, enpresa ezberdinek parte hartze-ko interesa izan deza-



2001ean sinatu zen Mendaur hitzarmena Doneztebeko Herriko Etxean.

ten. Zubietak ere elkartu da proiektu honetara, uren arloan Europatik datozen jarraibide berrien arabera Mendaur soluzioak aukera ematen baitio gizakien kontsumorako kalitatezko uraren hornidura eskaintzeko.

Proiektu berriarekin, ura tratatzeko planta egiten da, baita erreketatik ura hartzeko eta eramateko lanak eta ur-de-

posito orokorra ere egiten da. Nilsa enpresa publikoak egiten du proiektua. Ur-hartze eta depositoen lanetarako 1.719.024 euro erabiliko dira eta tratamendu plantarako 640.761 euro. Aitzineko legealdietan hartutako konpromezua betetz, Nafarroako Gobernuak oso-osorik ordainduko du.

Ur hartzeak hiru puntutan egiten dira, Zu-

bieta, San Anton eta Ezkurra erreketan eta hortik ponpatze estazio batera ailegatuko da ura. Handik deposito batera bideratuko da eta tratamendu plantatik pasatu ondotik, tratatutako ura bertze biltegi batera igaroko da. Hemenetik, herri bakoitzeko depositotara joanen da, lehendabiziko fasean eraiki ziren ur-eramate tuboetatik.

BERTIZARANA

Kamioientzat aparkalekua egin da Legasan

Bertizaranako Udalak ibilgailu astunen-dako aparkalekua egin du. Bi fasetan eraiki da, 105.000 euroko inbertsioarekin eta lehenik herrikoen beharra asetzera dator. Aparkaleku berria Legasan dago, herriaren eta Aceraliako lantegiaren artean.

Lanen fasea orain dela bi urte eman zion Udalak Azpiroz y Saralegi eraikuntza enpresari 81.399,93 eurotan. Ondotik, bigarren faseari Berako Arkaitza enpresak egin ditu, 24.000 eurotan.

Orain dozena bat aparkaleku daude, nahikoak herriko kamioi gidariek modu egoki eta arautuan aparkatu ahalizateko. Aparkalekuan lekua izateko ordaindu beharreko tasak sinbolikoak izanen direla aipatu du Andres Etxenike alkateak. Interesatuak lizentzia eskatu beharko dute Herriko Etxean eta honek urteberako emanen du. Erabiltzaileak aparkalekuaren atea ireki eta itxeko aginte elektronikoa eskuratu du. Aparkalekua erabiltzeko lehentasuna izanen dute Bertizaranako erroldan denbora gehien dutenak eta zirkulazio eta jardura ekonomikoen zergak ordaintzen dutenak. Aparkalekuaren garbitasuna eta zaintzea erabiltzaileen esku egonen da.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakioak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

**PINTURA LANAK
OROKORREAN**

666 235 466
948 630 683

Bidasoa 49 - 1. ezk
31780 BERA

DONEZTEBE

Mendiaren Eguna antolatu du Errekak abenduaren 18rako

Alberto Iñurrategi mendizalea zineman izanen da

ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkartek, bertze urtetan bezala, Mendiaren Eguna antolatu du abenduaren 18rako. Zuzendaritza Batzordeak erabaki duenez, Errekak antolatzen dituen ez ohiko ekitaldiak ez dira gehiago egingen. Udak instalazioak kobratzen dituen bitartean. Halere, aurtengo Mendiaren Eguna aitzinera eramanez, dagoeneko antolatua eta hitzartua baitago.

Goizean mendi ateraldia izanen da, gero bazkaria. Casino elkartean, eta akitzeko, eguneko ekitaldi garrantzitsuenak. Alberto Iñurrategi izanen baita zineman. 19:00etan «Hire Himalaya» proiektzioa eskainiko du eta gero mendizale famatu honen solasaldia eta galderak egiteko aukera izanen da.

Bertze aldetik, Errekak Eguberritako saski paregabea osatu du.



Argazkia: JOSEBA OLAGARAI

Kontxa zerbitzugunearen eta Elor-Txuri jatetxearen artean dagoen aparkalekuan sute handia gertatu zen azaroaren 21eko goizaldean eta bederatzi kamioi kixkali ziren. Ez da jakiterik zerk eragin zuen sutea baina pentsatzen da paperezko bobinak zeramatziten bi kamioietan sortu zela sua, baina hau idazterakoan ez da hipotesirik baztertzeko. Oronoz-Mugairi, Bera eta Lesakatik etorritako su-hiltzaileen lanak sua bertze kamioietara ez hedatzea lortu zuen.

Zozketa abenduaren 19an izanen da, igandean, 13:00etan elkartean egoitza. Mendi bizikleta, mikrouhin la-

bea, telebista, likuadorra, sandwichera, argazki makina, urdaiazpikoa, ardoa, likoreak eta bertze aunitz gauza ditu Do-

neztebeko komertzioei esker osatutako saskiak. Errekak bere esker ona adierazi nahi die lagundu duten guztiei.

ITUREN

Abenduko lehen astebururako Kultur Egunak antolatu dira

Ibintza kultur taldeak hainbat ekitaldi eta Errege bezperako zozketa prestatu ditu

ttipi-ttapa

Azken urteetan bezala Ibintza kultur elkarteak abenduaren 3, 4 eta 5ean kultur egunak antolatu ditu.

Abenduaren 3an, ortzirala, haurren eguna izanen da. Goizeko 11etatik aitzinera haurrendako jokuak eta tailerrak egingen dira, baita herri kirolak ere. Eguraldi txarra egiten badu Herriko Etxeko ganbaran egingen dira, bertzenaz plazan. Eguerdian, 13:30etan azken urteetan arrakasta handia izan duen umeen bazkaria egingen da. 16:30etan Euskal Telebistan furi-furian dagoen «Betizu izar artean» an-

tezlana ikusgai izanen da eta 20:30etan talo jatea egingen da Herriko Etxeko ganbaran.

Abenduaren 4an, larunbata, 11:30etan mus txapelketa egingen da eta arratsaldean, 16:30ak aldera zetreria hegaztien ikuskizun polita ikus ahal izanen da. 21:30etan afaria izanen da Herriko Ostatuan.

Abenduaren 5ean, igandea eta kultur egunetako azken egunean, afrikar doinu eta dantzek arratsaldean giroa alaituko dute.

Zozketa

Bertze aldetik urtero bezala Ibintza kultur taldeak 2005eko



«Betizuak izar artean» ikuskizuna ortziralean arratsaldean eskainiko da

urtarrilaren 5ean, Errege bezperan egingen den zozketarako boletoak salgai pasatu ditu. Aurtengoan lehenengo saria zere eder bat izanen da, bigarrena bizikleta bat eta azkenik, hirugarrena, bi lagunendako afaria Altxunea erretegi.



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Altxateko Plaza, 2
BERA

GOIZUETA

Umore Ona elkarteak hogeigarren urteurrena ospatuko du abenduaren 12an

Iñigo Elizegiren aldeko barrikotea egingen da abenduaren 18an

Esteban AROTZENA

Umore Oneko bazkideak hil honen 12an bilduko dira mahaiaren bueltan, elkartearen urteurren berri bat ospatu asmoz bazkari eder bat dastatuz. Zenbaki borobila dute, gainera, aurtengoa, 20 urte beteko baititu Umore Onak 2004ko bukaera honetan. Aurretik izena eman behar dela oroitarazi nahi die komisiok bazkide guztiei.

Iñigoren aldeko barrikotea

Parisko Fresnesen espetxeratuta dagoen Iñigo Elizegiren aldeko



ARGAZKIA: JOSUNE NARBARTE

Funki-ikastaroari erantzun ederra eman zioten herriko emakumeek.

barrikotea antolatu dute herrian abenduaren

18rako. Afarirako txartelak salgai daude da-

goeneko ohiko lekuetan.

Azaro kultural arrakastatsua

Aurtengo azaro kulturalaren lehenengo hiru ekitaldiak erantzun ederra eman die herritarrek aurreko edizioetan gertatu zen bezalaxe. Funki-ikastaroan 40 emakumeek parte hartu zuten, eta Labriten kantaldian eta antzerki emanaldian bete egin zen ganbararena. Azaroko laugarren ekitaldiaz, 27ko feriaz, alegia, hurrengo alean luze eta zabai idatziko dugu.

ARESO

Neguko Festa abenduaren 5ean antolatu du Guraso Elkarteak

Mikel Olazabal eta Jon Betelu pilotariek DV txapelketako finalerdirako txartela jokatu dute

Juana Mari SAIZAR

Neguko festa abenduaren 5ean antolatu du Guraso Elkarteak. Mezarekin hasiko dira, eta ondoren plazan, taloak, umeendako jokuak, pilota partiduak eta dantzari txikiak izango dira. Erredondoa saltsan lehiaketa egingo da eguerdi partean eta ondotik herri bazkaria egingen da. Arratsaldean trikitixa txapelketa eta

txokolatadak bukaera emango dio aurtengo Neguko Festako egitarau zabalari.

Eskolako teiltua berritzea

Eskolako teiltua berritzeko lanak laister hasiko dira. Uste baino okerragoa omen dago, zura dena hondatuta eta hori horrela izanik aurrekontua handitu egin

da eta 105.000 euroko kostua izango du. Gorriz enpresari eman zaio adjudikazioa.

Udaletxeko etxebizitza

Udaletxeko etxe biziak alokatzeko zegoela abisatuz bandoa ateratu zen duela denbora bat. Eskaera bakarra izan da epe barruan eta alokairuan sartu behar dutenek konponketa la-



ARGAZKIA: JUANA MARI

Trikitixak bere lekua izanen du aurtengo Neguko festan, txapelketa egingen baita arratsaldean.

nak bere gain izango dituzte.

Olazabal eta Betelu DV txapelketako finalerdian

Mikel Olazabal pilotari aresoarrak eta Jon

Betelu bere bikoteak Diario Vasco Tomeoan finalerdirako postua jokatu dute abenduaren 11n, Urretxun. Orain arte egin duten lanaren jarraipena nahiko dute, zorte piska batekin batera.

Abenduko programazioa Lur dantzalekuan Ostiraletan sarrera dohainik



abenduak 3
ostirala
DJ

abenduak 4
larunbata

Aurora Beltran (Johannes Jordan)
Gari (Hertzainak)
Joseina Etxeberria (DJ)
DJ residente

abenduak 10
ostirala

«Pariak Bai»
Musika zuzenean

abenduak 11
larunbata
DJ residente
+ gonbidatuak

AUTOBUSAK herrietara itzultzeko goizeko 7etan

>>1 Lur dantzalekua _____ Lekarazko bidegurutzea, Gartzain,
Ziga, Aniz, Berroeta, Almandoz, Oronoz,
Narbarte, legasa, Doneztebe, Arraioz
>>2 Lur dantzalekua _____ Elizondako plaza, Elbete, Arizkun,
Erratzu, Amaiur, Azpilkueta



elizondo(nafarroa)



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Jose Joaquin Azkarate, Aitor Azkarate, Mikel Azkarate, Maider Azkarate eta Emma Tomassone, Jauregiko behi gasna prestatzen familian.

JAUREGIKO JOGURT ETA GASNAK

Behiak jeiztetik produktua dendara eramatera familian egiten da prozesua

Anizko Jauregian Azkarate familia jogurtak eta gasnak egiten aritzen da, etxeko behien esnea erabiltz. Abuztuan hasi ziren lan honetan eta prozesu guztia, hasi eta akitu, etxean egiten dute. Nafarroa osoan Jauregia da modu honetan lan egiten duen leku bakarra. Betiko nekazari familia, aspaldiko urteotan behiak izan dituzte etxean, baina behi horien esnea bertze modu batean erabiltzea pentsatu zuten. Etxean gasnak eta jogurtak egiteko burutazioa izan eta hori aitzinera ateratzeko lanean hasia, biak bat izan ziren.

Joseba OLAGARAI

Joan den abuztuan eman zituen lehendabiziko fruituak Azkaratearren lanak eta ordutik eskualdeko hainbat dendetan erosten ahal dira Jauregiko gasnak eta jogurtak. Gurasoak eta hiru anai-arreba aritzen dira lan ho-

netan, baina Mikel eta Aitor anaiak izan ditugu gidari produktu hauek nola egiten dituzten ikusteko bidaian.

Mikelek gasnak egiteko prozesua azaldu digu. Kuadratik esnea bildu eta pasteurizatzeko makinara joaten da, hor 72 gradutan egosten da eta

gero 28 bat gradutan ateratzen dute lantzeko. Mila litro pasteurizatzeko ordubete behar izaten da. Ondotik hasten da gasna egiteko prozesu guztia: esneari gatzagia botatzen zaio, fermentoak, gasnarendako behar den guztia, pixko bat nahasi eta 40 bat minutu egoten da. «Gero, moztan hasten gara, gazuraren %20a kendu eta ura botatzen zaio. Sistema hau Nafarroan ez da erabiltzen, guk Santanderen ikasi genuen, Asturias eta Kantabriar aunitz erabiltzen da eta momentuz ongi ateratzen ari zaigu. Gero, molde edo zimitzetan sartzen ditugu, batzuk 800-900 gramokoak eta bertzeak 400 bat gramokoak. Zimitzak bete ondotik prentsan sartzen ditugu, lau bat orduz, Phmetroan azidez neurtzen dugu eta hortik ga-



Hasiera zaila izanzen zen produktuak komertzializatzea...

Dendetara gan behar genuen produktuak eskaintzera, baina kostatzen zitzaigun pausua ematea. Azkenean anaia eta biok abiatu ginen,

ideiarekin bakarrik, produkturik gabe, eta lehenbiziko inpresioa ona izan zen. Baztanen egon garen lekuetan ez dugu inolako kejarik, arras ongi hartu gaituzte, esku zabali. Aunitzek bazekiten zertan ari ginen eta prest zeu-

Aitor AZKARATE Anizko Jauregia

den produktua hartzeko. Gero, denei probatzeko eman genien, nik uste gustatu zitzaizela, eta saltzen hasi ginen. Gehien bat Baztanen hasi ginen, Malerrekan eta Bortzirietan ere hasiak gara. Landa etxeetako jendeak ere eramaten du, Madrilera jotetxe duen pertsona bat ere etorri zen eta eramane zituen. Salmenta ongi joan da. Egia errateko ez genuen espero horrela joatea, hasieran beti baduzu hala-ko zantzak bat, baina orai kontent gaude.

Merkatuko bertze jogurt eta gasnekin ere borrokatu beharko duzue...

Merkatuan bertze gasna eta jogurtekin borrokatu behar duzu, baina bada tokia denendako. Gasna guztiak ez-

berdinak dira eta bezero bakoitzak bere gustokoa harrrapatu beharko du. Dendetan ez ezik, etxean ere saltzen dugu, astearte eta ortzegunetan, 12etatik 1etara eta 7etatik 8etara. Larunbat eta igandetan 12etatik 1etara irekitzen dugu.

Zuen behien esne guztia ez duzue gasna eta jogurt bihurtzen?

Ez, hori helburua da, baina urte batzuetarako helburua. Gure kuota urtean 400.000 litrokoa da eta gaur egun, afera nola dagoen ikusita, laurik bat transformatzea izan- nen litzateke, poliki-poliki joanen gara, presarik gabe.

Etorkizunerako bertze asmorik baduzue?

Etorkizunera begira, esne pasteurizatua eta jogurta mermeladarekin saltzeko asmoa dugu, beti ere ikusiz zein inbertsio egin behar den horretarako.

«Jogurta mermeladarekin eta esne pasteurizatua ere saldu nahi dugu»

tzatzeko putzura pasatzen dugu bertze lau-paborts orduz eta hortik ortzeko kamarara pasatzen da. Hemen 12 gradutan %90eko hezetasunarekin egoten da. Gero, hozteko kamaran sartzen dugu, 4 gradutan. Lehenbiziko egunetan, egunero buelta ematen diegu gasnei, azala egiteko alde guztietatik. Laugarren egunetik, bi egunero ematen diegu buelta. Hamar bat egun dituztenean saltzen ditugu».

Aitor Azkaratek aipatu digunez, «hasieran jogurta ez zela errentagarria erraten ziguten, lan handia duelako, baina animatu eta hasi ginen. Jogurtak kaduzitate itxia du berez, 28 bat egun, baina guk kontserbanterik ez diegu botatzen eta 15 egunez kadukutzen da. Orduan, eskariaren arabera egiten dugu, ez egunero. Aste- an bi edo hiru egun egiten dugu. Gasna asteen behin edo bitan».

Jogurta egiteko 80 litro esne 85 gradutara berotzen dugu pasteurizatze-ko. «Gero, 45 gradutara jautsi behar da momentuan, horretarako ur hotza botatzen diegu inguruan. Fermentuak bota, nahasi eta potoetan betetzen dugu segiduan. Hortan familia guztia aritzen gara, beharko! Lan handia du eta ordua baino lehen bete behar da. Kamaratan hozten paratu, etiketa jarri eta prest!».

ESNE INTEGRALA ETA ETIKETA BEREZIA

Gasna eta jogurt hauek duten berezitasun handiena prozesu guztia etxean egiten dela da, Azkaratek aipatu digutenez:

«behi belagian hazten da, guk jeitzen dugu, esnea transformatu, etiketatu eta saltzen dugu, kate guztia egiten dugu, banaketa barne. Ez dago bitartekaririk eta produktu guztiak naturalak dira. Esne integrala deitua-koa erabiltzen dugu, halako marka berezi bat da, horren bamean gaude, eta Nafarroako lehendabizikoak gara esne hau erabiltzen transformazioan. Arau batzuk bete behar dira esne integrala izateko: behiak ehuneko horentzertze belaretik jan behar du, tramendu antibiotikoak ez dira kasik erabili behar, behiak lo egiten duen tokiak garbi egon behar du, arront naturala izan behar du». Jogurta nahiz gasna egiteko esnea pasteurizatu behar izaten da, «gauza txarrak kentze-ko. Pena da prozesu honetan esnearen propietate on batzuk ere kentzen direla, baina beharrezkoa da eta egiten dugu».

Bertze berezitasuna etiketa da. Kris-



ta- lezko poto ttikietan sartzen dituzte jogurtak eta etiketa guztiek badute beraien logotipoa eta sanitateak eskatzen dituen gauza guztiak: noiz egina den, noiz kadukutzen den... Gasnaren etiketak ere baldintza berdinak betetzen ditu.

Logotipoa berezia dute, Kukuxumusuko Mikel Urmenetak egin, Mikelek aipatu digunez, «deigarria izatea nahi genuen, ez klasikoa, eta hori lortu da. Grazioso da gainera! Etiketa guztia euskaraz egin da. Erdara ere sartzea eskatzen zigutelako sartu genuen zerbait, baina gainerako guztia euskara hutsean da».

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Comission Paritaire: En cours

Tirada (Tirage): 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andututa: 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

ttipi-ttapa@ttipi.net

ARGITARATZALEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. **PRESIDENTEA (Président):** Pello Apeztegi. **KUDEATZALEA (Gérant):** Joxemari Irigoin. **ZUZENDAKARIA (Directeur de publication):** Aitor Arotzeta. **PUBLIZTATEA (Publicité):** Kulturkari, SLU. **ADMINISTRATZIOA (Administration):** Amaia Gola. **BERRIEMALEAK (Collaborateurs):** Mikel Ilarregi, Esteban Arotzeta, Juana Mari Salazar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenika, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Iñitza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Oteagalar, Nerea Mixaltonena, Aitor Arotzeta, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakei Gofi, Rakei Amigo, Iñaki Kontsumitzaileen Elkarte.

IMPRESORIA (Imprimeur): Gertu. **ERAKUNDE LAGUNTZALEAK (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereneko udalak, Zugarramurdiko Aklarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Mainerakako Zerbittu Mankomunitatea...

Harpidetza sarriak:

Hego Euskal Herria	26 €
España	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Mainerakako eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Iturengo onddo biltzaileei idatzitako dietenei:

Onddo biltzearen buruz idatzitako dietenei gauza batzuk esan nahi diet. Ez bazizuten axola ez zenuen lehenik idatzitako idatzitako gauzak. Gauza honekin ikusi dudana da, min egin nahi duzuela baina horrela ez duzue ezer lortzen, baizik eta zuek fama txarragoa izan gauza hauek idazteagatik.

Herri guzti horietan izan badira inori ez dio azolarik. Jubilatuak direnez, badaukate denbora libre asko eta ez diote inori ezer kalte egiten, ezta ebasten ere. Onddoak mendian ateratzen direnez, denenak dira, ez dute izenik jartzen, eta bakoitzak jakingo du etxean geratu, saldu edo oparitu. Ohartu naizenez, jendea oso inbidiosa eta ezin eramia haundia dago, honekin esan nahi dudana da zuek zaretela jende hauei ezin ikusia eta ez besteek, zeren eta ez dute kalteirik egiten. Inori ez zaigu axola zer egiten duten auzokoak eta nora joaten diren, eta denbora gauza horietako baldin bage-nu, gu ere joan gintezke mendira onddo eske eta ez besteak kritikatzeko egon, beraiek libreak dira noranahi joateko. Txakurra bezala tratatzearena oso gauza grabea da eta nire ustez lehenik frogatu beharra dago eta ez hemen, honara idazten, hori beste leku batean egin behar da eta frogekin. Ni zuek bezala denbora gauza haue-tan ez nuke askorik galduko, zeren eta ez dira gauzak ebatsiak antzineko leerotan esan du-

dan bezala eta denbora izanez gero senar-emazte hauek bezala gehi-go mendira joan behar genuke baraiak bezala, nik baita zuek ere.

AA

Iturengo onddo biltzaileei buruz

Aintzineko ttipi-ttapan Iturengo onddo biltzaile bateri buruz eskribituta karte leitu ondok, animatu naiz eskribitzera, leitu dutenarekin ez nagoelako konforme. Emakume horri esker, nik, eta dakitenez beste aunitzek ere, onddo aunitz jaten ditugu onddo garaian, betan jeiki gabe, eta debalde. Zuek usteduzue, aurreko idazleak dion bezala, hain beketsa baldin bazen emakume hori, niri, eta lehen erran duan bezala, beste aunitzeri onddoak erregalatuko zigula, salitzeko aukera izanda?

Bakoitzak atera dezala bere konklusioak, baina ni ezin nuen eskuak gurutzuta gelditu leittutakoa leittuta.

72.628.909

SOS Erreka

Udal kirol instalazioen erabiltzaile diren erakundeei kobratzeko Doneztebeko Herriko Etxearen proposamenaren aitzinean, eskubaloiko lehen taldeko jokalariek nildu gara neurri honen aintzinean gure desadostasuna azaltzeko eta gure elkartearen Zuzendaritza Batzordeak neurri honen kontra hartu duen jarrerarekin bat egiteko.

Erreka KE-ak Doneztebeko herriari eta batez ere gazteei eskaintzen dien zerbitzua azpimarratu nahi dugu; gure herrian aisialdi osasungarriko proposamen bakanetakoa baitugu gure elkartearena.

Era berean, irabazi asmonk gabeko elkarte batean lanean esku zabaltzen den jendea zoroa nahi dugu (zuzendaritza batzordea, entrenatzaileak, boka-lak, babesleak, dendak...). Bere lanarekin Erreka KE bezalako proiektu batzuzinera eramanez.

Bertzalde, Herriko Etxeak kiroldegia eraikitzen egindako ahalegina eskertu nahi dugu, Herriko Etxearen diru txarrendako karga handia suposatzen duela. Baina Erreka herrian eskaintzen dituen zerbitzuak kontuan hartuta ez zaigu ongi iruditzen Elkar-teak kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu behar izatea (azken 28 urteotako dinamikarekin apurtuz), batez ere Erre-karen lana musu truk dela kontuan hartuz.

Herriko politikariek Erreka herria eta esanahia gubierno dituztela uste dugu. Elkarte giza talde batez osatua da, ilusio bakararekin: kirola. Borondatez egiten dute lan, inoren eskerrak jaso gabe (guziak dakigu hori) beti ere Erre-karen interesen defentsan eta ez bere interes pertsonalen alde.

Guzti honengatik Zuzendaritza Batzordeari gure babes osoa eman nahi diogu. Zorionak doneztebarko guztioi erakusten ari zaren ausardia, duintasuna eta koherentziagatik.

Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den, baina guretzat Erreka gaur orain dela bi hilabete baino handiagoa da eta gehiago baloratzen dugu.

Guzi hau inflexio-puntua izatea espero dugu, afera konpontzea, Erreka erakunde gisa haztea eta heldu diren belau-naldiak kirol ezberdinetan aritzeko aukera izatea. Hori bai, Erreka Kirol Elkartearen barrenean.

Erreka Kirol Elkarteak lehendabiziko taldeko jokalariek

Erreka herriko balizko desegitearen inguruan Doneztebeko Udalaren iritzia

Doneztebeko Udalak «Erreka» Kirol Elkartearen balizko desegitearen inguruan herrian agertzen ari diren berriak direla eta, gai delikatu honen inguruan bere iritzia emateko beharrezkotzat jotzen du.

Lehenik eta behin Udalbatzak kiroldegia- ren egoera ekonomiko larria dela eta, instalazio hauen etorkizuna bermatzeko neurriak hartzea beharrezkotzat jotzen du. Kontuan hartu behar da instalazio hauen mantenimendurako nahitaezkoak diren bi langile bertan aritzen direla.

Kiroldegia- ren eta frontoiaren erabilera denboraren %90 kirol elkarte- tei zegokiela ikusita (Erreka, futbola eta pilota) talde hauek erabiltako ordu bakoitzaren-

• IRAKURLEAK MINTZO •

gatik Udaleri kantitate bat ordaintzeko aukeran pentsatu zen, horrela talde bakoitzak bere beharrak antolatzeko eta talde batzuen eta bertzeen artean konparaziozko bidegabekeriak ez izateko.

Kontuan hartu behar da ere talde hauek egiten duten erabilera ia esklusiboa dela eta partikularreiezinaizkiela instalazio hauek alokatu.

Erreka taldeko zuzendaritzak neurri hauek ulertuko zituelaren ustearekin bilera batera delitu zitzairen. Bilera horretan zuzendaritzako kideek agertu zuten iritzia honako hau izan zen: gauzak dauden bezala uztea, hau da, urtero 7.000 euroko dirulaguntza jasotzea eta kiroldegia erabilera doakoa izaten jarraitzea.

Ondoren egin diren akordio saioak ez dute deustarako balio izan, hondarean erabilitako ordubakoitza eragatik Errekak prezio errealearen %25 ordaindu beharko du. Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kideek bilera hori izandako jarrera negatiboa eta eman duten laguntza eskasa azpimarratu behar dugu. Hondarrean lortutako akordioarekin ordaindu beharko dutenaren adibide gisa urrian 166 eu-

ro direla nabarmendu nahi dugu.

Azkenik Doneztebeko Udalak «Erreka» elkartearen jardura inoiz ez duela gutxietsi nabarmendu nahi du eta honen frogara da udalaren balabide ekonomikoak ahal den hobeak kudeatzeko egiten ari diren ahalleginak, horrela oraindik urte luze ordaindu beharko diren instalazio hauen etorkizuna bermatzeko.

Guzion ahalgina mezezi duela pentsatzen dugu eta horregatik taldeko lehendabiziko plantilaren iritziaz gain komenigaria izan zitekeen handiago eta garrantzitsuago den taldearen oinarriari, hau da, bazkideei beren iritzia galdetzea.

Doneztebeko
Udal Korporazioa

Toki Onako Guraso Elkartearen izenean

Toki Ona Institutuko Guraso Elkartek eskerrak eman nahidizkio Bortzietako Oinarriko Gizarte Zerbitzu eta Mankomunitateari, Guraso Elkartek eta Institutuak elkarlanean antolatuta, gure seme-alaben droga menpekotasuna prebenitzeko Askagintzakikas-torduetan eskaintzen dituen solasaldiak emateko proiektua diruz laguntzeagatik.

Berako Toki Ona
Institutuko
Guraso Elkartea

Margari eta Igorri konpromisoa

Unibertsitatean eza-gutu genuen elkar. Ikasle borroka bateratu ginen. Nafar senak. Eus-

karak. Eta geroztik, tar-tean-tarteant kointziditu dugu, han-hemen, konpromisoen harira: Euskal Herria eta euskara. Orain zu eta zure konpromisoa bahitu dituzte Igor.

Egunkaria isilarazi zutenen aritu ginen eskuz esku, Margari, Zestoa-Andoain-Bera-Lesaka bi-dea proiektu berri bate-raiko ilusioa egin zenuen maiz, egin genuen. Berria etorri zen gero, gizarte honen konpromisoa, eta zu, bertze anitz bezala, burubelari aritu zinen. Konpromisoa zurekin ere: Euskal Herria eta euskara. Zu ere, Igor bezala, bahituta eraman zaituzte.

Samina, amorrua, askatasun eza ditut barre-nean. Zuen konpromisoa bahitu dute. Etxean behar duzuela eginen dut oihu, ozen, Zuekiko konpromisoa.

Jon ABRIL (Bera)

Zerionak Goizueta

Pasa den azaroaren 6 eta 7an, Goizuetan Nafarroako gazte eskolak ospatu ziren. Larunbat goizetik igande iluntzera arte, nafarroa guztiko 80 gazte inguru bildu ginen herrian, gazteok egun bizi dugun egoeraren inguruan eztabaidatzeko.

Lerro hauek aprobetxatuz, guzti hau aurrera ateratzea, herriak eman duen erantzuna goraitu nahi genuke. Honenbestez gure eskerri beroenak eman nahi dizkiogu: Goizuetako Udaletxeari, Guraso Elkarteari, Umore-Ona elkarteari, Goizuetako Eskolari, Goizuetako Gazte Asanbladari, trikitilari eta bereziki goizuetako eskola-ko garbitzaileari eta bi egun hauetan etengabe lanean aritu diren ezker abertzaleko jende guztia.

Benetan, mila esker. Zuen laguntzarik gabe guzti hau ez zen egiterik izango.

Honelako herriarekin, irabaziko dugu!!

Goizuetako SEGI

OHARRA

Iritzi guztiak errespetagarriak direnez, eskutitz guztietan idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia eman behar zaizkio ttipi-ttapari. Bertzela, ez dira argitaratuko. Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORA

LESAKA:

• Askelehenetik ostirakera, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenean 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
NOME: MALDAERREKA S.L. Bidea 71 • Telefono: 946 63 70 50
email: artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI S.L. Telefono: 948 133326 Fax: 948 133713
NOME: La Villa karrika, 4-teneko • 51000 BURLATA
gabon@artekari.com

Lagile Autonomak

Hekazari eta merkatariak
Nomen eta Awguro Sozialak
Lan-kontratuak laguntza
Enpresa berri estandieren sorkuntza
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta PPP
Enpresa atzerriak
Elkartasun eta jaiakiko espedienteak
Batasmentuaren planak eta aurrerakuntzak

BORTZIRIAK

Bai Euskarari Akordioa gauzatzeko Jarraipen Batzordea lanean ari da

Abenduaren 16an gizarte eragileei aurkezpina egingen zaie Lesakan

Joseba OLAGARAI

Bi hilabete badira Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eta Kontseiluaren arteko elkarlan hitzarmena sinatu zela. Joan den urriaren 15ean egin zen mankomunitatearen batzar orokorrean Bai Euskarari Akordioaren aurkezpina eta heldu den abenduaren 16an gizarte eragileei zuzenean egingen zaie aurkezpina, Lesakako Kasinoan egingen den ekitaldi handiago batean. Ordu arte sentsibilizazio eta karrikaratze garalan daude. Zalne Rodriguez, Jarraipen Batzordeko kideak aipatu digunez euskararen normalizazioan gizarte eragileei konpromiso zehatzak eskatzea eta horiek paper gainera eramatea da orain duten helburua: «Euskararen normalizazio prozesuan urrats erabakiorrak eta sendoak emateko beharrik bultzatuta abiatu dugu Kontseiluarekiko elkarlana. Orain ar-



Kontseiluko Zigor Etxeburua, Bai Euskarari Akordioaren jarraipen batzordeko kide batzuekin batera, Etxalarren azaroaren 18an egindako bileran.

te Bortzirietan egin den lana hor dago, baina ez da nahikoa. euskara egun bizi duen eraso batzuetatik delako, dirulaguntzak murriztea, euskarazko hedabideei lizentziak ukatzea edo udalera idazkari eta kontuhartzaile eradaldunak bidaltzea». Horren aitzinean, euska-

raz bizitzea ahalbidertuko duten konpromiso zehatzak hartzeko garaia heldu dela uste du: «lehenbiziko solasa euskaraz egiteko konpromisoa, fakturak, nominak, bilerak edo aktak euskaraz egitea...».

Bai Euskarari akordio hau aitzinera eramateko eta arestian ai-

patutako konpromisoak hartzeko Jarraipen Batzordea osatu dute Kontseiluak, Euskara Mankomunitateak, euskalgintzak eta hainbat gizarte eragilek. Prozesuari gainbegiratu eman eta lan guziaren segimendua egingen dutela aipatu digu Zigor Etxeburua Kontseiluko

B o R t Z
I R i e T a N



euskarari

kideak. «Eskualde guziko ordezkari izanzen da bertan eta Kontseiluaren aholkua eta laguntza izanen dute».

GIZARTE ERAGILEEN
AURKEZPINA
ABENDUAREN 16AN
LESAKAN

Bai Euskarari Akordioa gizarte guziri zabalduta eta sektore guzietara eramateko ekitaldi bat prestatu dute Lesakako Kasinoan abenduaren 16rako. «Gizarte eragileei, elkartei, enpresei, ikastetxei eta prozesu honetan protagonista izanzen direnei zer nahi dugun aurkeztuko diegu. Hau guzia zer den erakutsiko diegu, zer den Bai Euskarari Akordioa, zer konpromiso klase proposatzen dugun eta azken finean publiko egin eta ezagutarazi egiten hasi garena».

Ondotik, urtarila eta otsailen atez ateko lana egingen dute Mankomunitateak kontratatutako dituen bi pertsonak.



Harategia

Eztegara 3
Tfnoa: 948 630088
BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

bortzirUDI
BERA

KARTELAK
KAMISETAK
BISERAK
TODOSERAK

NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI eta DISEINUAK

Eztegara 28 Bilerak
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ZJ
Zalain
jatebrea
Hostala

14 logela,
bainu eta TBrekin

948 63 15 21
Bera - Nafarroa

BERA

Udalak babesa eskaini dio Euskaltegiari

Kotto Alzuguren eta Imanol Larrañaga epaitu ondotik sententziaren esperoan daude

Amaia eta Ainhoa

2005erako aurrekontu proiektuan, Nafarroako euskaltegi eta gaueskolei diruz laguntzeko kontu sailean, %65,98ko diru murrizketarekin proposatzen du Nafarroako Gobernuak. Proposamen honen aurrean, Udalak bere kezka adierazi du Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza gutxitze horrek IKAKo Bortziritako Euskaltegiaren bideragarritasun ekonomikoa kolokan jarriko lukeelako. Beraz, Udalak, Bortziritako Euskaltegiak gai honen inguruan aurkeztutako mozioa aho batez onartu du eta hemendik aitzinera ere IKAKo Bortziritako Euskaltegiarekin elkarlanean segitzeko eta beratar guztiei euskaltegiak eskaintzen dien zerbitzua babesteko asmoa adierazi du.

Udala-Mapfre akordioa

Berako Udalak eta Bide Segurtasunerako Mapfre Institutuak trafiko

ko istripuen prebentzioaren inguruan elkarrekin lan egiteko akordioa sinatu dute. Trafiko istripuena hain arazo larria izanik, haur eta gazteen hezkuntza prebentzio modurik eraginkorrena dela ikusten dute. Orokorrean, trafikoa eta zirkulazioaren inguruan, haurrek eskolan jokaera ardurasuak, solidarioak eta zibikoak eskura ditzaten lortu nahi da. Akordio honekin, Mapfrek, eskaera egiten duten eskolei, behar duten materiala ematen die. Horrela, lehendabiziko al-dian, leku ilunetan ibiltzen diren kirolarientzat besoetan jartzeko zinta erreflektanteak banatuko dituzte.

Kantu afaria abenduaren 11n

Abenduaren 11n kantu afaria egingen da Espidobaitan 21:00etan Oskar Estanga eta Jaione Olazabalekin. Txartelak 18 euroren truke erosi daitezke Errekalde ostatuan. Eta egun



Bera Herriko III. Ziklo kros saria abenduaren 5ean

Gure Txokoa elkarteak heldu den igandean, abenduaren 5ean, Bera Herriko Ziklo-kros sariaren hirugarren edizioa antolatu du. 2.440 metroko ibilbidea prestatu da, aitzineko urteetan bezala, Matxada futbol zelaian abiatu eta helmuga izanen duena. 10:00etan kadeteak hasiko dira, gero junior eta emakumeak eta azkenik, sub-23 eta elite mailakoak.

berean Espidobaitan bertan, 16:00etan Espidobaita Elkarteko bazkideen batzarra izanen da.

Sententziaren esperoan

Kotto Alzuguren eta Imanol Larrañaga azaroaren 10ean epaitu ondotik, sententziaren esperoan daude. Fiskalak 8 urteko kartzela-zigorra eskatu zuen eta oraindik sententzia ez dute jakinarazi.

Juan Tomas Fagoagak dimititu du

Juan Tomas Fagoaga Lopez, Herrialdeko zinegotziak, lan kontuak direla eta, Udalean dimisioa aurkeztu du. Udalak dimisioa onartu eta Rosalinda Gallegok hartu du bere zinegotzi kargua.



"Emakumea eta kirola"

Nafarroako Gobernuak Kirola eta Gazteria Sailak, bigarren urtez "Emakumea eta kirola" kanpaina antolatu du. Aurten Azagra, Zizur, Burlata eta Beran martxan jarri da eta azaroaren 23an, Beran, 30 bat emakume parte hartu zuen ekimenean. Kanpaina honetan, horretarako etortzen diren dietista profesionalak, emakumeak pisatu eta neurtzen dituzte beraien egoera fisikoa ezagutzeko eta loditasuna edo bertze arazoren bat daukaten jakiteko. Honez gain, Cecilia Gomez Vives dietistak aktibitate fisikoa, osteoporosia, menopausia, loditasuna eta emakumearentzako garrantzitsuak diren hainbat gaien inguruan hitzaldia eskaini zuen. Orokorrean, eta batez ere adinean gora doan jendearentzako ongi elikatzea eta kirola egitearen garrantzia azpimarratzea da kanpaina honen helburua.

ANSONEA jatetxea

Bguneroko menua eta karta
Asteazken eta jai egunetan menu
berria

Foruen Plaza 1 • T. 948 631155 • BERA

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera • Tfn: 948 630 735 - 407 406 781

T. 948 631462
Alzate 1 • BERA

Xirell




- 02 Etxebizitzaren isolamendua
- 04 Parketa zainduz
- 06 Ongi etorri etorkizunera
- 08 Sukalde berria
- 10 Etxeko txikien ametsa
- 18 Bainugela obretan
- 22 Alokairuak: European diferente da
- 26 Elektrizitate eta gasaren faktura



Etxegintza

gehigarria





**PUERTAS
PAGOLA**

SALMENTA eta PARATZEA

- Ateak
- Leihoak
- Eskailerak
- Armairu enpotratuak
- Parketa
- Tarima...

Tel: 636 17 28 95
Tel-Faxa: 948 630383

Juan Ignacio
Oiartzabal
ARKITEKTOA

948 630304 • Ipar karrika, 15 • BERA

ARIZKUN
zerrategia

Zerrategia
Zurezko teilatuak
Zurezko egituren montaia

© 948 453 304 • Dantxarineako errep • **ARIZKUN**

ETXEBERRIA
ZYRGINDEGIA

Zurgin lanak orokorrean

Tel.: 948 450310
Mugikorra: 608. 677 997

ELGORRIAGA

Etxebizitzaren isolamendua

Etxe bakoitzean konponbiderik onena hautatzea da koxka

Energia aurrezte eta aire korronteei, paretetako hezetasunari edo metalaren lizunari aurrea hartzea etxearen isolamendu egoki batez lortzen da neurri handi batean. Paretetan, sabaian eta zoruaren zehar airea eta beroa sakabanatzen dira; beraz, adituen arabera, aipatutako puntu estrategiko horiek sendotzea da neguan beroa etxe barruan atxikitzeko eta udan hotza kanpoan mantentzeko modurik onena. Hartarako, merkatuan badira material isolatzaile ugari, eta haien eskaintza asko eboluzionatu da azken hogeitau urte honetan, amiantotik beste batzuetara igarota; beste horiek askoz ekologikoagoak dira, propietate hobekak dituzte eta etxebizitza suteetatik babestu eta zaratatik isolatzen dute. Azken urteotan isolatzaileak izan duten iraultzari esker edozeinek bere etxean, nahi dituen tokiak blokeatzen ditzaie.

Paretak

Material isolatzaileak hautatu baino lehen kontuan izan behar dira etxea dagoen inguruko tenperatura nagusia, haren bolumena...

Moduak eta materialak:

• **Iztuku sintetikoa.** Horma bat da, zenbait geruza dituena; geruzen artean ohol isolatzaile bat du beira-zuntzeko ehun metaliko batek eta ura jasaten duen substantzia akriliko batek

sendotua. Sistemarik berrienetako eta erabilienetakoa da, etxe barruan erabilitako isolatzailearekin moldarazten erraza eta aire sartzea murrizten eraginkorra delako.

• **Adreilu hutsak.** Profesional askoren ustez, etxea isolatzeko sistemarik onena dira. Aire beroak eta hotzak pareta sendo eta astunak zeharkatzeko denbora gehiago beharko duela bermatzen du material honek. Haren zuloak direla medio, isolamendua lortzen da.

• **Hormigoia.** Haren propietate nagusiak beroaren kontzentrazioa eta absorzioa dira, gero, etxe barrenean askatzeko. Hartara, material horrekin egindako etxebizitzek perlita, polietileno hedatua eta antzeko isolatzaileak behar dituzte.

• **Olana plastikoa.** Paretak hezetasunetik babesteko gomendagarria. Profesional batek instalatu behar du, barruan pareta eraikitzeke erabili zen materiala sartu behar da eta.

• **Isurpen-isolamendua.** Pareta bukatuetarako aukerarik onenetakoa da, haren erabilera erraza dela-eta. Likido hori ekipo pneumatiko batez putz eginez edo sabaiko habeen arteko tartetan isuriz instalatu daiteke.

Sabaiak

Etxeke energia galtzeari buruzko ikerketek seinaltatzen dutenez, sabaia-



INDEGIA
ZURGINDEGIA

Teilatuko zurak
Etxe zaharren
moldaketa
Etxe berriak
Eskailerak
Sukalde-mobleak

948 451906 • 689 531012 • **AURTITZ**



Sabaiaren isolamendu

**egokiak beroketako
gastuen %35 murriz-
lezake. Etxearen atal
horretatik beroak ihes
egiten ez duela
ziurtatzeko,
egokia den materialen
batez isolatu behar da.**

Aldatzeko interesik ez izateko arrazoi nagusia nabarmena da: erabiltzaileari ez dio merezi elektrizitate eta gas hornitzailez aldatzeak, besteak beste, ekarriko dion abantaila ekonomikoaren aldean, ustez (oker, hale-

re), eraginen dizkion gestioen deserosotasuna handia delako eta hornitzaile berriak eskainiko dion kalitate eta zerbitzuaren jarraipenak ziurtasunik eza eraginen diolako (ulergarria, baina arrazoirik gabea). Etxe batean batez besteko bihileko 1.400 kWh gas kontsumoa eta 450 kWh elektrizitate kontsumoa osorik hartuta urtean aurrezki handiena 26 eurokoa izanen litzateke (merkatuan dauden eskaintzen artean, merkeena hautatuz, kasu honetan, Unión FENOSA Comercial), baldin eta bi zerbitzuak elkarrekin kontratatuko balira ba-

NAFARROAREN EGUNA

ABENDUAREN

3^A



Jauregia ezagutzeko bisita gidatuak



Musika koru eta bandak



San Frantzisko Xabierkoari eskeintza



Opera-gala Baluartan



Jalaldi Gaztea



"Lunni"-en ekitaldiak



Ekitaldi instituzionalak



Nafarroako Urrezko Domina

¡GOZA EZAZU!



Nafarroako
Gobernua

karrik, eta baldin eta erabiltzailearen lehengo banatzaileak lau urtean behin egin beharreko derrigorrezko gas instalazioen azterketatik 43 euro kobratuko balu (ez du beti hori kobratzen), Unión FENOSA kobratzen duen bezala.

Merkatu liberalizatuan zerbitzuaren kalitateak merkatu arautuko kalitate berbera izaten jarraitzen badu ere, merkatu librean kontsumitzailearen erantzukizuna handiagoa da, izan ere, administrazioak kontrolatzen ez dituen etxe komertzializatzaileek eginiko kontratuei aurre egin behar die kontsumitzaileak (horiek lehen kontrolatuta zeuden). Eta etxe komertzializatzaileek sareen erabilera ordainduko ez balute, haiekin batera kontsumitzaileak izanen luke banatzaileari ordaintzeko erantzukizuna. Eta hainbat etxe komertzializatzaileek ordaindu ezean, hornidura mozketak egin aurretik, erabiltzaileari fakturrei aurre egiteko epea murriztu egingen zaio. ♦

Edozein bezerok eta Estatuko edozein tokitan enpresa bakoitzaren proposamenak kontsultatzake www.cne.es orrian. Erregistro ofizialean 60 elektrizitate etxe komertzializatzaile inguru daude eta 30 gas etxe komertzializatzaile, gutxi gorabehera, baina CNErekin (Energiaren Batzorde Nazionala) lankidetzan aritzen diren eta beren eskaintzak Internet bidez zabaltzen dituzten 14ko zerrendan, sektoreko ohiko enpresa handiak nagusitzen dira, erabiltzaileek urteez geroztik ezagutzen dituztenak: Endesa, Gas Natural, Hidrocarburo, Iberdrola, Naturgas, Unión Fenosa eta Viesgo.



MUEBLES
Telletxea

Rosa Seminario z/g - Tfnoa: 948 450 258 DONEZTEBE

LEITZA

Igor Astibiaren atxiloketak hainbat mobilizazio eragin ditu herrian

Batzar berezian, Larrain, Aralar eta EAren mozioa onartu zen

Mikel ILLARREGI

Duela hamabost egun Hego Euskal Herrian Poliziak martxan jarritako operazioaren ondorioz, Igor Astibia leitzarra beste lagunekin batera, kartzelaratuta izan da. Baltasar Garzon epaileak deitu zuen Auzitegi Nazionalan deklaratzera, konfiantzako abokatuarekin. ETAko kidea ez zela eta «oso une larriak, oso gogorak» igaro zituela esan zion epaileari. Halere, aurretik aipatu dugun bezala, kartzelaratuta egin zuten.

Egun horietan hainbat mobilizazio egin zen herrian. Horien artean asanbladak, prentsaurrekoa, bi orduko lanuzteia erabatekoa, geldialdia eta manifestazioa. Bestetik, aipatzekoa da Udal batzar berezian bildurik, Larrain, Aralar eta EAk aurkeztu eta onartutako mozioa. UPN taldeak abstentziora jo zuen eta bere idatzi propioa aurkeztu zuen, beraien aldeko botoak eta beste onurak aurrera eramateko asmoz.

Mediku euskalduna eskatuz

Osasun Etxeko zerbitzua euskaraz izan dadin, hainbatekimen egin eta egiteko bidean dira. Alde batetik udal batzarrean onartutako mozioa eta honek eskatzen zituen Osasun Departamentuko zuzendaria-



Hainbat herritar bildu zen udaletxean Igor Astibiaren atxiloketa salatzen.

rekin bilera eskatzea, salaketa jakinarazteko eta neurriak har ditzala mediku euskalduna bidaltzeko. Orain, Euskara Batzordearen proposamenaz, medikuaz aldatzeko deia zabaldu da. Hau azaltzeko eta argitzeko prestaturiko idatzian, garbi esaten da, hau ez dela mediku ez-euskaldunaren aurkako lana. Osasunbideak herriko errealitatek urrun, eguneroko funtzionamendurako ezartzen dituen arauen aurka baizik, honek, edonoren euskaraz bizitzeko ahaleginak zapuzten baititu. Lehengo fase batean, abenduaren 15a bitarte, idatzi horrekin bat datozenen eskaerak bildu nahi dira, bertan entregatzeko. Idatzia nahi duenak, Euskara Zerbitzuko bulegoan bil dezake.

Mendi taldearen egitaraua

Datorren asteko asteburuan abenduaren 11 eta 12an Mendi Taldeak ibilaldia antolatu du Picos de Europa dagoen Peña Vieja (2613m) gailurrera. Lo egiteko tokia alde aurretik gorde behar denez, nahitaez ohiko tokitan eman behar da izena abenduaren 9rako. Bestetik esan, 2005 urterako federatu nahi duenak aukera izanen duela abenduaren 14 eta 16an, arratsaldeko 7etatik 8etara Aurreran bertan. Ondoren federatzeko txartelak ez dira eginen jakinarazi digute mendi taldeko kideek.

Azkenik esan, 18 eta 19an "Orientazio ikastaroa" antolatu dela Amaia Elosegiren eskutik. Ikastaro teoriko-

praktikoa izanen da. Hurrengo alean zehaztasun gehiago azalduko ditugu, baina jakin partehartzeko izenak aurretik eman behar direla. Bazkideek doan eta besteek 5 euro ordaindu beharko dute.



Haur aisialdirako begiraleak.

Haur aisialdirako begiraleak

Urtero bezala, Euskara Zerbitzuak Eguberrietarako Aisialdi tailerrak antolatu ditu. Honetarako hiru begirale behar dira. Parte hartu nahi duenak bi asterako programazioa aurkeztu behar du, hemezortzi ordu guztira. Izena emateko Euskara Zerbitzura jo behar da, 948 510814 telefonora hots eginenez edo leitzaldeak@euskalnet.net helbidera zuzenduz, abenduaren 1etik 14a bitartean.

FLASH

Migel Mari Elozegi eta hartzak

Juan Zelaia IV, Salakera lehiaketak bi autore saritu ditu. Batetik Migel Mari Elozegi leitzarra "Hartzak Pirinioan XXI. Mendean" lanarengatik eta bestetik Joseba Azkarragak idatzitako "Diruak behar luke bihotzik", "Luzek" dienez, bere lana bertan bizi direnei begira dago egina, batez ere, «Garantziak da oso, bertako batek, artzain batek, edo inguruko biztanleek, zer dufen hartzairen kontra eta zer alde» dio egileak. Saria bi irabazleen artean banatu behar izan dute. Lanak Pamiela editorialak argitaratuko ditu.

Eskola Kontseilurako kide berriak

Eskola Kontseilurako guraso guztien artean bi berri aukeratu behar dira eta honetarako sei aurkeztu dira: Rosa Zozai, Arantxa Azpiroz, Urko Arozena, Esther Alcaraz, Joseba Txopereña eta Miren Alduntzin. Aukeraketa abenduaren 2an izanen da.

BAZTAN

UPNko Gobernuaren «zigor politika» salatu du EAko udal taldeak

Dirulaguntzak emateko, lanak bete ezin diren epeetan eginarazten ditu

ttipi-ttapa

Eusko Alkartasuna-ko udal taldeak Nafarroako Gobernuak Baztanekin duen «zigor politika» salatu du, «Balleko Etxeak egiten dituen dirulaguntza eskari guztiak ukatuz eta laguntzak hartu ahal izateko lanak bete ezin diren epeetan eginaraziz». Azkeneko udal baztarrean, lanak akitzeko epea gibelatzea eskatzea erabakiz aho batez, UPNko zinegotziek ere alde bozkatu zuten.

BASERRIETAKO BIDEAK ABENDUREN 15ERAKO

Toki Administrazio Departamentuak baserrietako bideak moldatzeko atera duen dirulaguntza deialdi batekin sortu da aferra. Izan ere, lanen azken ordainketa abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar izan du deialdiak. EAko udal zinegotzien ustez, «Nafarroako Gobernuak berak, dituen baliabide guztiak, ez



ARGAZKIA: OCHOA

Elizondoko txurreroei herritarren omenaldia

1966. urtetik honat, hogei hemezortzi urtez Elizondora etortzen den «La Exquisita» txurreriari esker ona adieraziz omenaldi xumea eskaini zion herriri azaroaren 11n. Rafa Olaizola, Mari Cruz Goñi eta Irantzu Izeta kargodunak eta Ana Mari Marin, txistularien titikien laguntzaz Herriko Etxetik txurreriara joan ziren eta Elizondoko armarrira zuen kaikua eta lore xorta oparitu zitoten Villamor Campos familiari.

luke lortuko hain epe laburrean lanak akitzea». Iñigo Iturralde eta Florentino Goñi zinegotziek adierazi dutenez, «baserritarrek nahita en-gainatzen dituzte, itxaropen faltsuak sortuz

eta, orokorrean, baztandar guztiei iri eginez». Udalak beti erantzun berajasotzen omen du Nafarroako Gobernutik, «dirurik ez dagoela» eta EAko zinegotziak nekatuta daude

«bigarren mailako nafarrak bezala» tratatzen dituztelako. Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak «bere gustokoak ez diren Udalak ere errespetatu behar dituela» adierazi dute.

PERTSONAIA

Juan Cruz IRURETA

50 kilo baino gehiago bildu ditu onddo denboraldian

Xorroxin Irratian baratzeari buruzko irratia egiteagatik ezagun da Juan Cruz Irureta elizondarrak. Baina bertze gisako baratzea ere lantzen du eta denboraldi honetan 52 edo 53 kilo onddo bildu omen ditu. Argazkian ageri dena azkenetako bat izan da, azaroaren 12an bildutako 860 gramoko ale frexko eta ederra. Egun horretan lau kilo bildu zituen Juan Cruzek. Orokorrean, Baztanen denboraldia izugarria izan ez bada ere, elizondarrak kexarik ez duela argitu du.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostetia
Hotela - Trinketea

Mona Beretziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artizanalea, eguneko eta txapela
- JATETXEAN
- Mona eta karta (estelakortak)
- Especialitate partien erretako jabetan

Ordaki Industrialdia • Tfnoa: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN

BAZTAN

Earen politika ez dela eraginkorra adierazi du UPNko taldeak

Udalak beretzat jotzen omen ditu Nafarroako Gobernuak egindako lanak

ttipi-ttapa

Aitzinetik EAK egin-dako adierazpenei erantzunez, prentsaurrekoa eskaini zuten UPNko zinegotziek azaroaren 23an. UPNko zinegotziek «Baztango Earen eraginkortasun eza, kriterio eta erabaki falta eta esblo antidemokratikoa» salatu zuten. Azken hilabeteetako udal politikaren errebasoa egin zuten Begoña Sanzberro. «Zergak igan dira, zahar etxearen, liburutegiaren, haurtzaindegia- ren edo hiltegiaren defizitaz deus ez daki-gu. Soluzioak bilatzea proposatzen dugu eta isiltasunarekin erantzuten digute», UPNren ustez. «Udal honek bere tantuak bezala kontatzen ditu Nafarroako Go-bernuak egiten dituen gauzak, eta udalaren beraren eraginkortasun ezagatik egiten ez direnak, beraien ustez, Go-bernuaren erruagatik di-ra». Sanzberroren ustez, ez dago aurreikuspenik: «Hirurteko Pla-



ARGAZKIA: OÑEDIRA

60 urteurrena ospatu dute Baztan eta Urdazubiko kintoek Aurten 60 urte bete dituzten Baztan eta Urdazubiko kintoek beraien besta egin zuten azaroaren 21ean. Santxotena bazkaidu eta Mister Kintok (Santiago Larre) eta Miss Kintok (Pakita Urtizberea) zapiak hartu zituzten Joan den urtekoen eskutik, Ana Arriada eta Javier Aitzugurenen eskutik. Francisco Santxotena akordeolariak alaitu zuen bazkalondoa eta heldu den urteko hitzordua ere egin zuten.

nean lanak eskatzen di-ra, baina gero ez ditu inork egin nahi, prezio-en igoera ez delakoz aumikusi. Elizondoko zehar-bideak dirulaguntza jaso zuen, baina ez mofdatu beharreko bide al-ternatiboek, aurkeztu zuten aurrekontuan

agertzen ez zirelako. Di-rulaguntza aurkeztuta-ko proiektuaren arabe-ra eman zen».

Baserrietako bideei dagokienez, UPNren ustez EAK nahita gibe-leratu du prozesua. «Ez dute pistak egin nahi, ez dakitelako nondik atera

lanak ordaintzeko falta den %20a. Maiatzean galdegin genuen non-dik aterako zen falta den dirua, orduan susmoa genuen eta orai bada-kigu: abeltzainei kobra-tu nahi diete, beraien-dako premiazko zerbi-tzua denean».

FLASH

1937ko kintoen bazkaria

1937ko kintoek bazka-ria eginen dute larunbat honetan, abenduaren 4an Beola jatetxean. Ait- zinetik meza izanen da 13.00etan Almandozen. Bazkarira apuntatzeko 948 585002 telefonora deitu behar da.

Gitxaurdiko argiak

Gitxaurdi udal kirolde- giko eta igerilekuko era- biltzaileek sarbidean ar- gia jartzea eta bidea zo- laberritzea eskatu dio- te Udalari. Neguko or- dutegia ezarritakoan gehiago somatzen da argi falta eta bidearen egoera kaxkarra, kirol- degia oraindik ilun da- goenean ireki eta ixten baita. Argirik ez dago- nez, erabiltzaileek au- toren bat pasatzera es- peratu behar dute zer- bait ikusteko.

Gartzaingo Pilareko baseliza

Azaroa hasieratik au- zolanen moldatzen ari dira Gartzaingo Arizte- gi auzoan dagoen Pila- reko baseliza. Batez ere teilatuan ari dira lane- an, egoera kaxkarrean baitago eta hezetasuna sartzen da baselizara. Zolako tarima kendu eta horren ordeaz harri-xa- balak ere jarri dituzte.

MENDI OSTATUA

Santiago 25 • T: 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea

AMAIUR • T: 948453060



asnap.me
servicio online de la gestión y mediación energética

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

• LANGILE AUTONOMOAK

- Garraioak
- Elektrizitatea
- Erakuntza
- Igeltzerak...

• NEKAZARIK ETA MENDI LANGILEAK

• ENPRESA GUZIAK

• Nominak eta Asegura Sozialak

- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioen aseseamendua
- Dirulaguntza erberdinak
- Sozietateen inposak
- Errenta aliorpenak

DOMESTICO

Rua Seminario, 4 lekuak
Tfno: 948 431933 Tfno/Fax: 948 431610
www.asnap.me

ELIZONDO

Santiago, 51 lekuak
Tfno/Fax: 948 580 506
www.asnap.me

IRUJA

Irungia, 2 lekuak
Tfno: 948 261208 Tfno/Fax: 948 261544
www.asnap.me

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

T: 948561468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Amezola 3B • ELBETE

SENPERE

Palisandro eta diamante ezteiak ospatu dituzte berriki Bereau eta Dolosor familiek

Hamalagarren Korrika martxoaren 12an pasatuko da herrian

Franck DOLOSOR

Senpereko airea ona ote da arantzarentzat? Baietz ematen du, herrian aspaldi finkatu ziren bi arantzarrak ongi bizi direlako. Senperen eta palisandro ezteiak (85 urte) eta diamante ezteiak (60 urte) ospatu baitituzte berriki. Kamietako Frantxisku Bereau eta Delphine Aguerre 1939an ezkondu ziren. Erreberako Mattin "Altza" Dolosor eta Aña Bereau bartz urte berantago esposatu ziren 1944an. Frantxisku eta Aña anai arreba dira. Kamietako nagusiak eta Erreberako etxeako andereak 87 eta 80 urte dituzte. Duela 77 urte, beren burasoen Arantza utzi zuten eta Senpererat etorri ziren

bizitzera. Bi urtebetez edo horiek ospatzeko, beren seme alabaguziekin bi besta egin dituzte duela gutxi Frantxiskuk, Delphinek, Mattinek eta Añak.

Korrika-14

Hamalagarren Korrika Orreagatik Bilborat iraganen da martxoaren 10etik 20era. Martxoaren 12an larunbarekin Senperen izanena da euskararen eta AEKren aldeko lasterkaldia. Iduriz, herriarrek gauzez egin beharko dute lasterka. Ibilbidea ez da oraino zehaztu baina Nafarroa Dantxariatik sartuko da. Heldu den udaberriko Korrikan euskaldunberriak omenduko dituzte, eta hauen artean, berriki zendu den

Andolin Eguzkitza euskaltzain bizkaitarra. Korrikaren bidez, dirua biltzen da helduen euskalduntzea laguntzeko.



Argazkia: STUDIO DE LA NEVILLE

Mattin eta Aña Dolosor-ek elgarri bai erran zioten duela 60 urte.



Argazkia: STUDIO DE LA NEVILLE

Frantxisku eta Delphine Bereauk palisandro ezteiak ospatu dituzte.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDIAZUBIN

390 m² perfume merkari saguenekin
Usain-oren, kosmetikok...
Euskal Herriko preziorik onenak

☎ (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

ZOANSA

SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Bonarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Telethon antolatu du Kulki elkarteak abenduaren 4 eta 5ean

Larunbatean animaleko paella
zerbitzatuko da Biltokin

Angela eta Xamo

Denak oroitzen gira Kulki elkarteak sortu zela Kiroletako Kiroi ostatuaren baliakuntza kudeatzeko. Geroztik, bere aktibitateen eremua hedatzen ari da. Heldu diren abenduaren 4an eta 5ean, 2004ko Telethon antolatzen du, Herriko Etxearekin eta elkarteekin denak eskuz esku. Okasione horitan herritarrek proposatutako manifestaldietan parte hartzen ahaliko dute. Izanen dira ibilaldiak, ziklo itzuliak, tenis eta pilota partidak, saskibaloia ta errugbi matxak...

Urtero bezala, larunbatean, bazkari tenorean, animaleko "paella" zerbitzatuko da Bil tokin, eta arratsean barazki eltzekaria, biapairu horiek Martintxo eta Larrun Kanta alaiturik.

Asteburuan, hiru eskoletako burasok pas-tizak salduko dituzte ma-

nifestaldietako inguruetan.

Olentzero

Olentzero heldu da gure herrira abenduaren 18an, larunbatearekin. Urtero bezala, hitzordua arratsaldeko 3etan finkatua da, herriko plazan. Han bertan, tikiak haur jokoak atxemanen dituzte. Elgarrekin elkarteak herriko haur guztiak gomitatzen dituzte Bil tokin, krakada hartzeko. Gero, Olentzero etorriko da haurren bila, ibilaldia egiteko herriko karraketan.

Usaian egiten den bezala, besta herriko plazako ostatueta bukatuko da, poteoa herriko txarrangarekin segituz.

Elkarteko kide guztien ohore

Azaroaren 13an, larunbat gauean, Herriko Etxeak gaudi bat an-



Haur jokoak atxemanen dituzte tikiak plazan abenduaren 18an.

tolatu du Kiroletako saskibaloia salan. Gauden urtean bezala Herriko kontseiluak, bere gisa, elkarte bikoitz on guztiek eskertu nahi izan dituzte. Orotara, elkarte guztien artean 150 bat pertsona bildu da lema honen inguruan. Heien artean, Loreen Egunean parte hartu zuten laborariak ere gonbidatuak izan dira. Honen kari, zintzurbustitzearen momentuan, ekainaren 5eko Loreen eguna eta pottoken jaustearen filma ikusten ahal zen. Ondotik, auzapez jaunak hitza hartu du elkarteko kide eta laborari guztiak eskertzeko. Erreintablen prestatu zuen afaria emana izan da. Azkaingo ikastolaren bu-



Aurten ere olentzero etorriko da herrira.

rasoek zerbitzaturik. Gaudiak giro goxoan bururatu da.

Kornelio

Kornelio musika eskolak, eguberriaren kari, ikusgarri bat antolatzen du bere elkarteko kideentzat, abenduaren 12an, Kiroletan. Talde

bakotzak bere soinu tresna jotzen ahaliko du. Honen ondotik, krakada proposatua izanen da.

Selauru husketa

Abenduaren 11n, larunbatearekin, Selauru husketa izanen da plazan.

BEINTZAko OSTATUA
C/ 448-450-011
BEINTZA-LARREN

HERRIKO ETXERAKO EDANTEGIA
C/ 448-450-011
MAIXAN ETA VERONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pertsonen egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

tapi tapa
☎ (0033) 948635458

Maderas GOMEN
Zalduvia Poligonak • IRURITA
☎ 948 560 645

- Era guztietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinatuak...

SARA

Presoak gogoan izanen dira Urtats gauean

Telethon azaroaren 30ean eta abenduaren 4an antolatua izan da

Saski eta Laetitia

Lehen aldikotz, Sarako presoek laguntzaile talde batek, Urtats gauean antolatzen du, Saran. Gaue hasiko da 7etan elgarretaratze eta zintzur bustitze alaitu batekin plazan. Ondotik, afora Omordiako gelan izanen da 10etatik goiti eta gaue bukatzeko, animazio mundiala prestatua da.

Txartelak 35 eurotan erosten ahalko dira abenduaren 24a arte, 06.85.75.83.82 zenbakira deituz.

Euskaldun haurideak bil gaiten batera

Herria behar dugu

menetik atera

Egin lehen urratsak

anaien aldera

Espetxetik datortzen;

Presoak Etxera

(Manex Bergarak idatzia)

Santa Katalinak

Urtero bezala, Santa Katalinak ohoratuak izan dira azaroaren 28an Ohaldeko kapera. Besta bezperatik hasi zen Iharlako Baraxarteajatebtean tripobx jatearekin, beti bezala arrakasta handia izan du. Igandean meza nagusia kapera eman izan da 10:30etan, eta

ondotik, Baraxarte aitzinean aperitifa denboran mutxikoak izan dira.

Telethon

Telethon miopatiari buruzko ikerlanen sustengatzeko kainpainak azaroaren 30ean eta abenduaren 4an antolatua dira. Azaroaren 30ean, hiru eskoletako haurrak elgarretaratze dira arratsaldean errebotean, oren bateko ibilaldia egiteko, ondotik haur guzientzat krakada eskainia izan da plazan.

Abenduaren 4an larunbatearekin, herritar guztiak komitatuak dira



Santa Katalina kapera.

Larrunera treinez upatzera eta iluntzean oinez jaustera sakeleko argiarekin. Parte hartzeke izenak eman behar dira abenduaren 2a aitzin Turismo bulegoan edo 05.59.54.20.14. zenbakira deituz (parte hartzea 10 eurokoa da). Hitz ordua San Inazio-ko lepoan da arratsaldeko 4etan.

Bertzalde eske ontzi bat emana izanen da postetxean ostirala eta larunbatean baita San Inazio-ko lepoan ere, larunbatean 4etatik goiti.

Eguberriko merkatua

San Josepe eskolak eta Sarako saltzaileak azaroaren 27an merkaturatu dute herriko plazan. Helburua ahalik eta jostailu gehien biltzea zen, Munduko haur gaixoen oparitzeko eguberri egunean.

Mus Txapelketa

Azaroaren 20an, Eskola publikoak mus txapelketa antolatu zuen Omordiako gelan. Oro-tara hogoi ekipek parte hartu zuten.

URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

Bi herrietako euskarari buruzko ikerketa argitaratu da

Etorkizun iluna somatzen dio Estibaliz Montoia egileak

Margari eta Koro


Urdazubi eta Zugarramurdi hitz egiten dugun euskarari buruzko ikerketa bat argitaratu da berriki. Nafarroako Gobernuak ateratzen duen azkeneko "Fontes Linguae Vasconum" liburuan agertzen da, eta egilea Estibaliz Montoia da. Ikerketa horretan aipatzen da bi herri hauek hitz egiten den euskarak lapurteratze jo-tzen duela eta aztertzen du horren zergatia: batez ere orografiatik

izan dela aipatzen da, Sara eta Ainhoarekin izan dugulako harreman estuena, Baztan edo Bortziriekin baino gehiago. Lan honetan gure euskararen etorkizuna ere aztertzen da, eta ez da sobera pozgarria, horrelaxe aipatzen baitu: «Esango nuke Zugarramurdi biko hizkera orain arte nahiko ondo gorde den arren, hurrengo urteetan bizitza zailagoa izango duela. Batetik, erda-
rak, gazteen artean ba-

tez ere, gero eta indar handiagoa dauka. Bestetik, euskara batuaren eragina gero eta nabarmenagoa da (telebista, egunkariak, liburak, eskola...)».

Altzari Zaharren feria Urdazubian

Hemen baina orain arte ikusi ez dugun feria bat antolatu dute Urdazubian: "Altzari zaharren Igo feria" du izena eta Monastegiko Klaus-troan egingen da. Abenduaren 3tik urtarrilaren



Gure herrietako euskara galtzen ari da batez ere erdaren indarragatik.

19ra egonen da irekita arratsaldean.

Bi antzerki emanaldi Zugarramurdi

Abendu hasierako zubi luze horretan Zugarramurdi bi kultur emanaldi ikusteko aukera izanen da:

- Abenduaren 4an, arratsaldeko 6:30etan, Azketa pilotalekuan: "La Banda" taldeak antzerki-

ki-zirkoa egingen du.

- Abenduaren 8an, arratsaldeko 5:00etan, Akelarrenean: Berako "Emaizta" emakume antzerki taldeak bere azkeneko lana eskainiko du. Talde honetan herrikoia den Inma Urangak parte hartzen duela erran behar da, eta baita ere gan den urtean bertze lan bat aurkeztu zutela sekulako arrakasta lortuz.

EZKONTZAK

Jose Vicente Ibarra Ibarra eta Amaia Olaetxea Villanueva, Sunbilla eta Lesakakoa, irailaren 4an.

Miguel Maria Otxandorena Baleztena eta Maria Lourdes Mitxelena Txopereña, Sunbillakoa eta Lesakakoa, irailaren 25ean.

Martxel Mitxelena Etxeberria eta Amaia Andonegi Miranda, Oartzungoak Lesakan, irailaren 25ean.

Santiago Zubillaga Loinaz eta Sonia Paz Alvarez, Gasteiz eta Donostiakoa, Beran, azaroaren 20an.

Patxi Xabier Vila Errandonea eta Noemi Abad Perez, Bera eta Bilbokoa, azaroaren 20an.

Jose Luis Baquedano Bergara eta Natalia Juanikorena Elizalde, Arantza eta Zubietakoa, azaroaren 20an.

Asier Otxoa Garcia eta Rakel Gofri Lakar, Bilbokoa eta Elbetekoa, urriaren 9an. Jaime Biguria Uhartea eta Raquel Etxabarri Sarasola, Elizondokoa, azaroaren 13an.

Jose Javier Garcia Aizpun eta Margarita Erbiti Gastesi, Antsoain eta Leitza, irailaren 18an.

Juan Jose Zabala Apezetxea eta Amaia Sagastibeltza Azpiroz, Leitza, irailaren 16an.

Unai Azpiroz Nazabal eta Mirian Errandonea Ordoki, Berastegi eta Arantzakoa, urriaren 23an.

Sébastien Fagoaga eta Laurence Lopez, Sarakoa, azaroaren 20an.

SORTZEAK

Bittor Telletxea Elizondo, Lesakakoa, azaroaren 7an.

Naroa Garbisu Etxabide, Lesakakoa, azaroaren 10ean.

Irati Fernandez Garcia, Berakoa, azaroaren 14an.

Katixa Saralegi Zubietak, Berakoa, azaroaren 20an.

Katixa Ospital Leiza, Elizondokoa, azaroaren 2an.

Amaia Etxabe Aizpurua, Elizondokoa, azaroaren 9an.

Martin Etxabe Aizpurua, Elizondokoa, azaroaren 9an.

Mikel Alexander Galarraga Custodio, Elizondokoa, azaroaren 8an.

Aimar Elizagolen Elizegi, Elizondokoa, azaroaren 10ean.

Iñaki Golenetxe Jaurena, Zugarramurdikoa, azaroaren 13an.

Mikel Juanotena Ezkurra, Doneztebekoa, azaroaren 8an.

Egoitz Ibarra Irisarri, Elgorriagakoa, urriaren 30ean.

Ruben Daniel Macovei, Narbartekoa, urriaren 17an.

Mathias Michau, Sarakoa, azaroaren 10ean.

Martin Berhau, Sarakoa, azaroaren 4an.



HERIOTZAK

Modesto Jorajuria Larramendi, Arraiozkoa, azaroaren 8an, 90 urte.

Martin Lekuberría Etxebeste, Lesakakoa, azaroaren 10ean, 87 urte.

Juan Francisco Zia Zalba, Irurikakoa, azaroaren 18an, 79 urte.

Maria Angeles Aginaga Arribillaga, Berakoa, azaroaren 16an, 72 urte.

Jose Leandro Elizalde Elizalde, Saldiasakoa, azaroaren 19an, 64 urte.

Pedro Maria Bertiz Albiasu, Lesakakoa, azaroaren 21ean, 72 urte.

Purificacion Salaberri Aintziburu, Elizondokoa, azaroaren 21ean.

Mariano Mendiberri Larramendi, Zigakoa, azaroaren 21ean, 88 urte.

Amalia Sansiñena Telletxea, Arantzakoa, azaroaren 4an, 81 urte.

Pantxo Cortea Sarratea, Zigakoa, azaroaren 23an, 39 urte.



Amalia SANSIÑENA TELLETXEA

Arantzan zendu zen,
2004ko azaroaren 4an

Aurpegi leuna
bihotza zabala
irifarre errexa
enakume kabala
ez zinen makala
zure animak
lagun gaitzala.

ZURE FAMILIA

Eskerrik asko oin samin hasian familiari eskaintako arretagatik.



Francisco (Pantxo) CORTEA SARRATEA

Zigan, 2004ko azaroaren 23an

Zure irifarrea eta borondatea
beti gurea ikusgai,
edozeineri laguntzeko prest
egoten zinen nolana,
guk hori bihotzez
eskertzen dizugu bai!
Zu hemendik joatea
ez genuen nahi.

Ez zaitugu sekula atzenduko,
milesker zuri, betiko gure Pantxo!

ZIGAKO ZURE LAGUNAK.



Eskela eta eskertzak 948 635458

Eskela jartzeko (nahi izanez
gero argazkiarekin) 65 €
ordaindu behar da.

Rural Kutxako

3008 0080 53 0703304626

kontuan sartu eta justifikantea

ttipi-ttapara igorri faxez (948

635457) edo postaz

argazkiarekin eta sartu nahi den
testuarekin batera.

(Andutzeta 12, 31760 Etxalar)

PILOTA

Donato Larretxeak Nafarroako txapela jantzi du zortzigarren aldiz

Donezteben azaroaren 19an egindako finalean jaun eta jabe izan zen

A.A.

Donato Larretxea aranztarra da Nafarroako Txapelketa Nagusia gehienetan irabazi duen aizkolaria azken hamabost urteotan, orotzira Donezteben lortutakoarekin zortzi txapeljantzi baititu. Aurtengo finalean lehen egurretik hartu zuen probaren burua, eta aldea handitu egin zuen enborrez enbor. Azkenean, 2 minutu eta 21 segundoko aldea atera zion Nazabali; kasik kanardiko baten aldea.

Hamar enbor ebaki zituzten lehian jardun zuten bortz aizkolariek, eta Larretxeak hagitx seguru aritu zen lehia osoan, prestaketa egokiarekin plazaratu zela erakutsita. Txapeldunaren esku dago, gainera, Nafarroako marka. Izan ere, 1998an lortu zuen bosgarren txapela, eta orduan, 23 minutu eta 42 segundoko ebaki zituen 10 enborrak. Hurrezkerok, ez du inork lortu 25 minututik jaustea. Iazkoarekin alderatuta, halere, Arantzakoak minutu bat eta 47 segundoko hobetu zuen. Nazabalek eta Barberenak ere iaz baino marka hobea egin zituzten. Doneztebeko pilotalekuan 400 bat ikusle bildu zi-



Donato Larretxea kontent zegoen Nafarroako txapela jantzita. Floren Nazabal eta Daniel Vicentek osatu zuten podiuma.

ren norgehiagoka ikusteko, eta ia denek ikusi zuten Larretxeak aukera handia izan zela irabazteko, lehendabiziko kanardikoan erakutsi baitzuen sasolan aritzeko moduan zela.

Lehen kanardikoan 15 segundoko aldea kendu zion Nazabali, eta hori kanardiko batean aunitz da. Gainerakoel minutu erdiakenduzien. Lanerdiak izan ohi dira errefentziak hartzeko mugarririk garrantzitsuenetakoak; bosgarren egurrean, Larretxeak minutu bat eta 29 segundoko aldea ken-

du zion Nazabali eta 3 minutu eta 32 segundokoa Vicenteri.

Ondorioz, argi zegoen Nazabalek erantzun gogorra eman beharko zuela Larretxeari txapela kentzeko. Egurrak ebaki ahala, alde zabaltzen egin zuen Larretxeak. Hirugarren postuari dagokionez, bigarren oinbikoa ebaki ondoren utzi zuen erabakita Vicentek. Laugarren Jaunarena izan zen eta bosgarren Lopez.

Urtea, Urrezko Bina-kako Lehiaketa irabazita hasi zuen Donato Larretxeak. Gero, bana-

kakoan jausten hasiz finalera heltzeko zela. Udan, berriz, beharaldi nabarmena izan zuen, eta orain berriz ere goiti egin du.

Nazabalek onartu zuen ez zela sasoi-ari eta besotatik ezinezan aritu zela: «Norma izango da, ezin baita urte osoan sasoi-sasoi-ari; sufritu ere egin dut. Gainera, aski behar du suertatu da txapelketa».

Vicentek lehen aldiz lortu zuen hirugarren postua, eta etxean egindako lana egitea lortu zuenez, pozik zen.



«Ez nuen espero horrelako alderik ateratzea»

Larretxeak egindako denbora ontzat eman zuen: «Daukadan adinarekin ez da txarra, eta gustura nago». Espero baino lan hobea egin izana arrazoitu zuen: «Euskadiko txapela gertu ikusi nuen, itxaropenik gabe plazaratu arren. Prestaketa aldetik eskas samar heldu nintzen, baina handik hona gehiago saiatu naiz eta nabaritu egin dut azken hilabeteetan; indarrean aritu naiz».

Alde handia atera zuela iritziz zion: «Ez nuen espero. Beharbada, Nazabal ez da hasi izango sasoi-ari, ezinezkoa baitzen alde hura ateratzea. Egur handiak ebakitzeko ere, erdi baten aldea nuen, eta harritu ere egin naiz nire buruarekin». Larretxeak aitortu zuen gogoz plazaratu zela, eta Nazabal estatuko zuelako itxaropenez.

	54	54	60	60	72	72	60	60	54	54
1. Donato LARRETXEA	1'04"	2'39"	4'54"	7'11"	11'30"	15'50"	18'37"	21'25"	23'46"	25'51"63
2. Floren NAZABAL	1'19"	3'11"	5'57"	8'19"	12'59"	17'33"	20'38"	23'44"	25'57"	28'12"99
3. Daniel VICENTE	1'35"	3'34"	6'19"	9'17"	15'02"	20'26"	23'43"	26'54"	29'35"	32'04"81
4. Jose Juan BARBERENA	1'37"	3'46"	6'40"	9'30"	15'13"	21'05"	24'58"	28'11"	30'55"	33'29"91
5. Juan Jose LOPEZ	1'37"	3'58"	7'00"	10'15"	16'20"	22'35"	25'01"	29'20"	32'15"	34'51"36

PILOTA



Finalen ondotik, txapelketan parte hartu duten 132 pilotarientzat sariak banatu ziren.

ARGAZKIA: OSMAR TXOPERENA

Bortzirietako eskuz binakako txapelketaren finalak jokatu ziren azaroaren 20an

Lesakan bederatzi txapel erabaki ziren eta orain banakako txapelketa hasi da

A.A.

Azaroaren 20an jokatu dira Lesakan Bortzirietako Binakako laugarren Txapelketaren finalak. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Hondarribia, Irun eta Hendaiako 132 pilotari aritu dira astero-astero eskualdeko pilotalekueetan banatuta, 6 urte inguruko tikienetatik hasi eta 15 urteko kadeteak arte banatutako mailetan: tikiak, umeak, kimuak, haurrak eta kadeteak.

Bortzirietako Pilota Elkartek antolatzen duen txapelketaren final hauek goizeko 9:30etan hasi ziren tikiak B mailako finalarekin eta bederatzi partida jokatu ziren. Ondotik sari bana-

keta egin zen, bai finalak jokatu dituzten pilotarientzat eta baita parte hartu duten guztientzat ere. Urtero bezala, txapelketari akabilla emateko elkarrekin bazkaldu zuten pilotari, guraso, Udal ordezkari eta antolatzaileak.

Tikiak B mailan, Irun-Hondarribiako Eizagirre eta Iriondok 18 eta 12 irabazi zieten Berako Gure Txokoako Joseba Pikabea eta Jokin Huijiri. Tikiak mailan, Gure Txokoako Iñigo Martinez eta Ander Errandoneak, 18 eta 8 irabazi zieten Irun-Hondarribiako Arizmendi eta Zubizarretari. Pilotarien adina goiti zaien neurrian, partidaren gogortasuna ere handitzen jo-

an zen. Honela, Umeak B mailan, Irun-Hondarribiako Gorka Urdin eta Mikel Kondek 18 eta 14 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Eneko Esparza eta Joseba Bertizi. Umeak mailan, Lesakako Arkupeko Gorka Sanjurjo eta Unai Zamorano 18 eta 14 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Unai Telletxea eta Mikel Beginori. Kimuak B mailan, Hendaiako Aitor Mariezkurrena eta Xanti Ezpeletak 18 eta 16 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Asier Sein eta Adur Igantzi. Azkeneko tantua, aski ikusgarria izan zen, baina hendaiarren alde erori zen. Kimuak mailan, oraindik final orekatuagoa ikusi zen. Azkene-

an, Berako Gure Txokoako Luka Remiro eta Joseba Martinezek tantu bakar batengatik, 18 eta 17 irabazi zieten Hendalako Diego Suerregarai eta Andoni Ibarbururen kontra arituko dira. Haurrak B mailan, Berako Gure Txokoako Alex Eizagirre eta Andoni Riopedrek 18 eta 9 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Aitor Begino eta Iker Seineri. Haurrak mailan, Hondarribiako Beñat Arzelus eta Joritz Manterolak 18 eta 13 irabazi zieten Igantziko Biltokiko Beñat Txoperena eta Mikel Kanpori. Kadete mailako finalean, azkenik, Biltokiko Imanol Goienezek eta Gure Txokoako Andoni Martinezek,

18 eta 7 irabazi zieten Ekaitzako Ander Almandoz eta Andoni Mitxeleneri.

BANAKAKO TXAPELKETA ABIATU DA

Bertzalde, atsedenik hartu gabe, igande honetan hasi dira Bortzirietako eskuz banakako txapelketaren partidak. Hilbeltzaren hondarrera arte iraunen du eta 87 pilotarik eman dute izena, tikiak mailatik hasi eta haurrak edo infantil maila bitarte. Kadeteak ere jokatu dute, baina Bortzirietako Pilota Elkartea Txarutarekin biltzeko joan den astean eta txapelketa elkarrekin antolatzea erabakia hartu zezaketen bilera horretan.

AGENDA

egunez egun

MENDI ATERALDIK

BAZTAN

Abenduaren 5ean Urbailora ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.
Abenduaren 12an Dolmenen ibilaldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.
Abenduaren 19an Legatera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.

ZUGARRAMURDI

Abenduaren 12an Lesakara ibilaldia egingen du Atxuria mendi taldeak.

KULTUR EGUNAK

ICANTZI

Abenduaren 4tik 8ra Xehetasunak 12. orrian.

ITOBEN

Abenduaren 3tik 5era Xehetasunak 15. orrian.

JAIALDIK

IRUJIA

Abenduaren 18an Euskal Herrian Euskaraz erakundearen 25. urteurrena ospatzeko jaiakdia 18.00etan Anaitasunan. Bideo-emanaldiak, musika, pailazoak, imuntzo eta Beloki eta Anje Duhalde.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Az. 29tik abenduaren 5era Bera (A. Lasaga), Doneztebe (J. A. Mendia), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (O. Erbi) eta Goizueta.

Abenduaren 6tik 12ra

Lesaka (M. Marin), Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leitza (A. Gimeno).

Abenduaren 13tik 19ra

Bera (A. Fernandez), Etxalar, Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga), Leitza (M.J. Larraia).

Abenduaren 20tik 26ra

Bera (M.J. Sanz), Ituren, Iruña, Leitza (M. T. Plaza).

TELEBISTAKO TXOKOA



JOXE MARI KORTA, "KOTE" REN ESKUTIK

Sunbillako kanutiloak nola egiten diren erreportaian

Sukaldaritza kontuekin etorriko zaigu Joseba Olagarai lankidea ortziraleko erreportaian. Sunbillaraino hurbildu eta Joxe Mari Korta, "Kote" rekin elkartzeko da "Sunbillako kanutiloak" nola egiten diren ikusteko. Emaztearen laguntzaz jaki goxo eta errax hau nola egiten den erakutsiko digu Kote, pausu guztiak modu errax eta dibertigarrian azalduz. Kanutilo berexi hauek prestatu bitartean gizon eta emakumeen sukaldarako "afizio eta ohiturez" ariko dira Joseba eta Kote, irri artean gizon-emakumeen betiko borrokarri erantzuna harrautu nahian: Nor dira hobeak sukaldetan? Emakumeak ala gizonak?

Zirikaldi eta ironiak ez dira faltatuko. Hori bai, erreportaia etxetik ikusten duten guzietatik gonbitea luzatuko diete kanutilo hauek egiteko, bide batez denok izan gaitzekela sukaldari argi eta garbi utziz. Eskualdeko hainbat sukaldariren eskutik pantailaratzen den "Elitze Beroa" saioaz aparte, sukaldaritza kontuak beraz, ortzirale honetako erreportaian. Albistegiaren ondorekin, Ttipi-Ttapa telebistaren emankizuna etengo eta marrazko bizidunak, dokumentalak eta serieak izanen dira.

BASERRIA

Datu iturria: NAFARROAKO GOBERNUA
(Azaroaren 15etik 21era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 22,50 € (+3,50)

Zerri gizona
0,900 € kilo. (=)

Zerramak:
0,550 € Kg/bizirik. (-0,010)

BEHAKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanakal
Extra 3, 18 (+0,03)
1.koa 3,01 (+0,03)
2.koa 2,88 (+0,03)
Urruxak: €/kg. Kanakal
Extra 3,28 (+0,03)
1.koa 3,14 (+0,03)
2.koa 2,95 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanakalen pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
umuxak 228,00 (=)
idixkoak 245,00 (=)

Aretze nabarrak:
umuxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,90/2,95
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,30/8,60
8-10 kilokoak: 8,80/7,30

DISKAK

SKUNK

«Giltzak»

SKUNK

SKUNK-GOR, 2004

Hareka abesti berri eta bideo formatuan zuzenean kantu batek osatzen dute Skunk taldearen lan berria. Giltzak, Hendaiako bandaren seigarrena, mestizai kulturalaren baitan sortutako diskoa da. Ska edota reggae estiloko berotasunetik hardcore azkarraren indarra doazen estiloak aurki daitezke kantuotan, eta maisuki uztartu dituzte gitarraren distorsioa haize metal sekzio bikainarekin. Skunk-en kantuen hizkuntza euskara da nagusiki, bi salbuespen badiara ere: kantu bat gaztelaraz («P'adelante») eta beste bat frantsesez («L'é-té»). Giltzak XXI. mendeko Euskal Herriko soinu banda ezinobea dugu. Diska zatika grabatu zuten, 2003ko azaroan Akotz-en (Donibane eta Ziburuko gaztetxea), 2004ko otsailean Hendaiako Lanetik Eginan eta 2004ko uztailean Tolosako Bonberenean.

Abenduko zubi-foralean



duzu besta



Larunbata, 4

Sekulako guatekea 80 eta 90.
urteetako musikarekin



Asteartea, 7

Super dj besta eta kamisetak *
opari datorren bakoitzarentzat

* Bukatu arte

dj julenek

hautatuko du musika bi egunetan

Ah, Bordatxo baino lehen hartu zure tragoxka...

Bar

AMEZTIA
Asador

**BIXEN
OSTATUA**



Bar
EL CAFE



Bar
IRRINTZI

00-34 **948 63 54 58**

Zure honetan argia jartzeko 7. 4. orduan behar da
Ttipi-ttapa sarean: web: www.ttipi-ttapa.com (guztira argia jartzearen
7. 4. orduan behar da) 3000 COBO 03 0700304028 (guztira argia jartzearen
7. 4. orduan behar da) 3000 COBO 03 0700304028 (guztira argia jartzearen
7. 4. orduan behar da)

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!

Bat honetan partikular profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak ematen da. Ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren argazkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Ipeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

- ELIZONDO. -2. eskuko pisua salgai.
- DONEZTEBE. - Erakuntza berriko pisua eta lokal komertzialak salgai.
- BORTZIRIAK. - Eskara handia dagoeniz baserri eta bostak erosten dira.
- BERA. - Pisu pare bat salgai.
- TERENOAK. - Erosten dira.
- LESAKA. - Eskara handia dagoeniz pisua erosten dira.
- 2. eskuko pisu bat salgai.
- Partzela erakigamiak salgai.
- ARANTZA. - Etxe bat salgai.
- BAZTAN-BIDAZOAN. - Baserri, bostak, etxeak, pisua eta lur eremuak salgai.

948 481 841 / 948 30705 / 947 979 656

BULDAIN

LEITZAN

Bizitzara sortzeko prest
dagoen 160 m²ko
etxebizitzako duplex-a
salgai.
100 m²ko lorategia
dauka.
Herni erdian.
Oso aukera ona.
☎ 948 335 534 helbete

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. Merke. Ez du inporta zein egoeran dagoen. ☎ 948 631428 (11.00etatik 13.00etara).

LESAKA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 247808 (bulego orduetan).

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

BERA. Pisukidea bilatzen dut. ☎ 669 422122.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Salgai

BERA

Herni erdian dagoen
kafetegia salgai.
jubilaria dela eta.
Bezero aunitz eta onak.
☎ 948 630 254

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LESAKA. Albistur 55-J. 45 m²ko bajera komertziala errentan ematen da. ☎ 667 605233 edo 948 637780.

ITUREN. 42 m²ko bajera salgai. ☎ 652 764613.

LURRAK/ORUBEAK

113 Erosi

Oronoz, Oieregi edo Narbarte inguruan lurra erosiko

ADOS

ELIZONDON ADOS INMOBILIARIA

HELIBEDEA: SANTIAGO KARRIKA, 47
TELEFONOA: 948 580705
ORDUTEGIA:
asteleneanetik ostiralera: goizez 9:30 - 13:30; arratsaldez 16:30 - 19:30
larunbatetan 9:30etatik 13:00etara
WEB-ORRIA: www.ados-inmobiliaria.com
HELIBEDE ELEKTRONIKOA: adosadactan@ados-inmobiliaria.com
• Baserri, etxe, bostak, lur eremu, etab. salerosketa
• Komertzialak
• Gestiak
• Zerbitzu juridikoak (egunerat: abokatuak, prokuradoreak, notarioak...)

DONEZTEBEN BETIKO LEXUAN SEGITZEN DUGU:
Parroquia, 9 • Tel: 948451841 • Korreo elektronikoa: ados@ados-inmobiliaria.com
WEB: www.ados-inmobiliaria.com

Zure ingurua ikusi gaituzte inbentarioan: proiektu, aurrekontu, bideak... (eta gero) argazkiak partatu nahi baduzu gaituzte. Gv argazkiak gero konpartitu.

TERMITA eta **POLLIN** kontrako tratamendua.

BERA
DESINFECCIONES
☎ 948630155
BERA

ADOS abokatuak

Zerbitzu juridikoak
Santiago karrika 47
ELIZONDO
Tel: 948 580705

genukie etxe bat egiteko. ☎ 619 980909.

LANA 301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da lan egiteko, interna edo externa moduan. ☎ 620 455281.

Emakumea eskaintzen da lan egiteko, adinekoak edo haurrek zaintzen, etxeak garbitzen edo berrte edozein lanetan. ☎ 639 925403.

Neska bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta zaharrak zaintzeko. ☎ 637 020694.

Neska bat eskaintzen da externa edo interna edo orduka lan egiteko. Garbiketan eta adinekoak eta haurrek zaintzen, edo esperientzia duena. ☎ 628 550485.

Saltzaile administratzaile eskaintzen da, euskara eta fran-

tsesa ongi dakiena eta esperientzia handikoa. ☎ 687 832844.

Kontabilitateak, zergak, nominak, aseguruak etaba egiten ditut. ☎ 687 832844.

Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Badu C1 gidatzeko baimena. ☎ 690 757814.

Klase guztietako erreformak egiten dira: sukaldeak, bainugelak, telatuak, etab... ☎ 658 808456-649 270418.

Ibardinaren kamarera edo berrte lanen bat egiten nuke. ☎ 650 772171.

BERA. Langilea eskaintzen da garbiketa lanean aritzeko edo haur eta adinekoak zaintzeko. ☎ 666 349294.

LANA 302 Eskaintzak

IBARDIN. Jate etxe batean zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 629 694443.

IRUN. Pertsona euskalduna behar da etxeak lanetarako eta umeak zaintzeko. Lan egun osoa, kontratua eta Gizarte Segurantzia. ☎



Leizor DIEGO BURREARENA Oritzek 3 urte beteiko ditu azaroaren 30ean. Auniz urtez eta musu handi bat Marix eta Inaxioen partetik.



EIDER VELA MENAK 4 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak, etxeko printzesari, familiarren partetik, eta bereziki Gaitza eta Beñaten partetik.



IÑAKI CARRERA lekuak 9 urte bete ditu azaroaren 22an. Zorionak aita eta amaren partetik.



ANE MATXIKOTE ETXEBARRIA beratarik 2 urte beteiko ditu abenduaren 5ean. Zorionak aita, ama eta Maideren partetik.



ENEKO YARZUA SANCHEZ lekuak 4 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak amoni, 'tata' Elena, Koro eta gurasoen partetik.



AINARA PACHECO SAN JULIAN beratarik 3 urte beteiko ditu abenduaren 15ean. Zorionak aita, ama eta Ane-aren partetik.



MARTIN GARBIÑ beratarik 9 urte bete ditu azaroaren 15an. Zorionak aita, ama eta Saioaren partetik.



OLAIA OTXO-TERO TELLEYA beratarik 4 urte bete ditu azaroaren 24an. Zorionak eta musuak aita, ama eta Uxue-aren partetik.



OLAIA eta AINHOA azaroaren eta abenduaren 24an 4 urte beteiko dituzte. Zorionak eta musuak aita, Joseba eta Uxue-aren partetik.



Leizor AÑOR ZAHARANO Oritzek 4 urte bete ditu azaroaren 29an. Zorionak eta musuak Unai, aita eta amaren partetik.



Auniz urtez JOXEMIEL beratarik 4 urte bete ditu azaroaren 29an. Zorionak eta musuak Unai, aita eta amaren partetik.



NAIA MITXELENA MITXELENA lekuak 7 urte bete ditu azaroaren 25ean. Zorionak eta musu handi bat aita, amari eta bereziki Etxine eta Joana lehenaguseen partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa
Andutzeta, 12
31760 ETXALAR

Lenkonea

Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541

Bereko telefonaren azken hiru zifakiek Eguberrietako zuzkeraren azken hiru zenbakiek dituzten Urtebetetzearen bi afari dibak

URTE ZAHARREKO AFARIA 2004

Animatuenentzat Lenkonea jatetxeak ondotik eskaintzen dizuegun menu dotorea prestatu du. Ondotik, musikarekin hornitutako gau magikoa izanen da.

Menua

- Kaba kopa eta kanapeak
- Goxoki balsamikoa duen micuit-a, mahats patsen ogitxo xigortuekin
- Otarrain edo langosta entsalada epela
- Kardua almendreakin
- Kokotxak almejekin
- Azpizuna hornigaiarekin
- Bilorri tarta izezkiarekin
- Mahatsak eta turroiak
- Ardoak eta kaba
- Kafea eta kopa
- Musika eta serpentinak

PREZIOA:

94 euro pertsonako (BEZ kanpo)

ERRESERBAK.

Abenduaren 24a baino lehen Jatetxean

(Tel.: 948 625542)

Pertsonako 30 euroko seinalea.

Muebles MINKA

- IRUN -

SOFAREN HILABETEA
deskontu bereziak



- Aukerarik handiena
- Markarik hoberenak
- Material guztietan



Larunbata
arratsaldetan
irekia

- Logelak
- Tresilloak
- Jangelak
- Altzari
- laguntzaileak
- Dekorazioa
- Alfombrak
- Lamparak
- etab

República Argentina, 1 (IRUN erdialdean, Mendibil merkataritza zentruaren ondoan) • Tfnoa: 943 62 09 82

AMAIVR



SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA

Modelo berriak:

rustikoak, modernoak eta praktikokoak

Entzimerak, silestone, granito, corian...

Elektrogailu nazionalak eta alemanak

Proiektu eta erreformak:

BISITA EZAZU

Rosa Seminario 13 • ☎ 948 450400 • DONEZTEBE

- › can, pentsio planak

soilik gure pentsio planek

**ziurtatzen dizute
zure lasaitasuna**

eta aukera ere ematen diute, haiek sortutako inbazioren bidez zer gizerik proiektu finantzatu nahi duten erabakitzeko.

▶ Doaiko asagurus
dekanten bokaruk.

► Gainera, gauza erabilgarriak operituko dirikizugu, zure plana kontratatu, harten dirua sartu edo traspasoa egiteagatik.



Goldetu gure bulgoetan,
948 777 333 zenbakian eta www.cas.es

[illegible]

herman soul search type class